

LEMOIZKO ZENTRAL NUKLEARRA ESCALA 1:1

Izan zenaren kontakizun berriak

Sopela Josu Landeta

«Ordura arte inork
ez zuen jorratu
horrelako ekimenik»

5 | Erretratua

Uribe Kosta Mugikortasuna

Joan-etorri
askotarikoak;
erronkak, partekatuak

6-9 | Sakonean

Zuriñe Cuesta Umore Azoka

«Hainbat lengoaia
artistiko berri sortu
dira»

33 | Kultura

APIRILAK 06

MARTIARTU, Erandio

2025

KOTXERIK EZI
Autobusean
etorri

KAN

11:00 **TRIKITILARIAK ETA
PANDEROJOLEAK:**
ERANDIOKO MUSIKA ESKOLA

12:00 **EUSKAL DANTZAK:**
TRABUDU, GOI-ALDE, UZTARGI

13:30 **BERTSOLARIAK:**
UNAI MENDIBURU ETA
AMAIA ITURRIOTZ

15:00 **HERRI BAZKARIA**

16:30 **KANTAGUNEA**

18:00 **ERROMERIA**
LUHARTZ

PR
MAR
TXO

PUZGARRIAK

11:30-14:00
15:00-17:30



ANTOLATZAILEA:



BERBOTS
Erandion Euskaraz!
Erandioko
Euskaltzaileen
Mugimendua

LAGUNTZAILEAK:

Goiherriko Jai Batzordea
Goiherri Sokatira Taldea
Erandioko Musika Eskola
Ikastetxeetako I.G.E-ak

Trabudu Dantzari Taldea
Goi-Alde Dantzari Taldea
Uztargi Dantza Taldea

Erandioko Kantagunea
Astrabuduko Kantagunea
ALBE

BABESLEAK:

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **E!**
ERANDIO
LEIALA
AYUNTAMIENTO

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Uribe Kostako mugikortasunaren analisia
- 10 Herriak
- 20 *Escala 1:1* erakusketa, Lemoizko zentral nuklearraz
- 24 Agenda
- 25 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 Hezkuntza gehigarri berezia
- 28 42 Urduliz Bizkaia, Estibaliz Leonegaz
- 32 Galder Guenaga, irakaslea eta idazlea
- 33 Zuriñe Cuesta eta Umore Azoka
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 36 Aloka surf inklusiboa, Mijangoz eta Astobizagaz
- 36 Quadbol, kirol berri hau ezagutzera goaz
- 38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Faceguk: zer eskaintzen dio HIRUKAK zure herriari?
- 42 Atzera begira: metroak 30 urte
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta eta Julia Estevez

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Nahikari Ayo, Joxe Belmonte, Hodei Rodriguez, Joanes Atxa eta Ekaitz Herrero.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



Getxo
bizi ezazu



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentzia
URAREN BIDEAK



Urdulizko Udala



Gortizko Udala



LEMOIZ
DENONA



Barrikako Udala



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

In basque? Yes, noski!

NAHIKARI AYO Sortzailea



Gure seme-alabek Ingelese ederto dabilta! Zeinen harro esaten duten Isabel Erregina zenaren hizkuntzan artistak direla. Azken datuen arabera, DBHko ikasleek Euskararen ezagutzan behera egin dute. Harritzen gara? Hezkuntza Sailak Euskarari orduak kentzen dizkio Ingelesaren mesedetan. Irakasleak edozein arlo Ingelese ematera bultzatzen dituzte. «Berrikuntza» deitzen diote, garai berriak omen dira. Askok ez daukate Ingeles maila nahikoa eskola horiek emateko eta beste askok ez dute arloa menperatzen. Berrikuntza!

«Udan gure seme-alabak Dublinera doaz Ingelesa ikastera». Agian gazte gizajo horiek euskarazko barnetegi batean eman beharko lukete izena. «Zertarako? Euskara ikastetxean egiten dute, ez da beharrezkoa». Ez, noski. Zenbat purrustada botatzen dituzten euskaltegia garestia delako, C1-a ateratzeko gai ez direlako nahiz eta D ereduari ikasi. Hori bai, Ingelesko akademiak «merkeak» dira, ez dago dirulaguntzarik, baina ez dugu txintik ere esaten.

Gure kultura da, urteetan zapaldua izan den (eta jarraitzen duen) hizkuntza da. Gure gurasoek gogor lan egin zuten guk euskaraz ikasi eta bizi gintezan. Guri eman ziguten aukera, gure seme-alabei kenduko diegu.

Osasuna

HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Jauzi Ekosoziala



Osasunaren inguruan hitz egiten dugunean, normalean, ospitaleak, sendagileak, medikamentuak... finean osasun sistema etortzen zaigu burura. Irakurle askok izenburua irakurri eta artikulua Osakidetzako murrizketak izango dituela hizpide pentsatuko zuen, besteren bati elikadura etorriko zitzaion burura, eta futbolzale amorraturen bati, agian, Iruñeko futbol taldea.

Bada, ez. Nik gaurkoan garraio sistema eta osasunaren arteko lotura izan nahi dut mintzagaia. Bi kontzeptu hauek gutxitan lotzen diren arren, ukazina da euren arteko lotura. Hala frogatzen dute urtero airearen kutsaduraren ondorioz hiltzen diren horiek (6,7 milioi urtean, NBEren arabera) edo auto istripuetan bizitza galtzen dutenek (1.154 iaz Espainian).

Eskualdean, osasuna eta garraioaren arteko lotura ezin hobeto islatzen duen proiektu bat dugu mahaigainean: Subflubiala. Zazpi urtean zehar Artaza-Romo institutua inguratuko luke, patioaren zati handi bat ere hartuz. Honek larriki eragingo lioke ikasleen osasunari: hautsak eta gas kutsakorrek arnas sistema gogor kolpatuko lukete, eta etengabeko zaratak eta leku galerak osasun mentalean eragin nabarmena izango luke. Azpiegitura honen aurka egitea, osasunaren alde egitea ere bada.

Puntua eta kontrapuntua **Mugikortasuna**


«Autokritika»

Lehen oinez nengil, baina hala ezin zen. Garraio publikoa hartzen hasi nintzen eta bus edo trenez noranahi mugitzen. Gaur egun Bizkaibiziz ari gara zaintzen; hala ere ez al da autoa larregi erabiltzen?

JOSU LANDETA EGURROLA
Getxo

Zein da Uribe Kostak dakarren formula? Garraio publikoa ez dugu ahula, zu horretan ei zaude ta bejondeizula! Uste dut ez dugunez ahuntzaren eztula... «Autokritika» gutxi egiten dugula.

UNAI MENDIBURU VALOR
Algorta



Josu Landeta Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa

«Ordura arte inork jorratu ez zuen ekimen bati hasiera ematen genbiltzan»

1992an sortu zuten Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa berezia, eta bertan egon zen Josu Landeta, zehazki, mintzapraktika ekintzaren sormenean.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Josu Landetaren etxean «txikerretatik» euskarak presentzia izan du: «Aitite eta amamagaz bizi ginen eta euskara euren ahoan zebilen dantzari». Hala ere, bere euskalduntze prozesua «kaotiko» gisa definitu du: eremu publikoan gaztelania nagusi zen eta ikastetxea hasterakoan bere euskarak indarra galdu zuen. Alabaina, hizkuntzaren kontzientziak lekua irabazi zuen Franco diktadorearen heriotzaren hurrengo urteetan, eta euskaragaz zuen lotura berreskuratzea lortu zuen. 1992an, Euskal Herrian Euskarazen, Algortako Bertsolari Eskolan eta AEKn irakasle lanetan zebilen. Urte horretan sortu zuten Sopelako Esaera Zaharren lehenengo lehiaketa: «Algortako Lauaxeta eta Nikola Euskaltegian Gabi Basañez zegoen

irakasle, eta bere egitasmoen artean euskara eta bertsolaritza uztartzea izan zuen helburu. Giro hartan esaerak eta bertsolaritza batzeko ekimen bat burutu genuen, eta hura kale mailan tabernaz tabernako ekimen bihurtu zen. Herriko euskaltegi guztien artean kultur ekintzak eta lehen berbalagun taldeak antolatzeko pausoa emateko asmoz, herriko euskaltegien arteko batzorde eragile bat sortu genuen». 30 urte beteko dituen Esaera Zaharren Txapelketa horren lehenengo urtea familia-giroko ekitaldi gisa gogoratzen du, txikia tamainaz baina indartsua aldi berean, «ordura arte inork jorratu ez zuen ekimen bati hasiera ematen baikenbiltzan». Landetarentzako esaera zaharrak herriaren memoriak ahoz aho transmititutako esaldiak dira, «geure ohiturak, jakintza eta jokabideen berri ematen dutenak». Hala, azpimarratu du euskarak instituzioetan duen presentzia lan militantearen emaitza dela eta, oraindino ere, euskaltzaleen esku dagoela bidea egitea. «Atean ez dugu jainko salbatzailerik izango, gu gara gure eginkizunen neurria, eta errealtate berriak geuk eraikiko ditugu», azpimarratu du. ▶



**Joan-etorri
askotarikoak;
erronkak,
partekatuak**

Autoz, trenez, bizikletaz, oinez edo autobusez... Nola mugitzen garen ez da soilik garraibide kontua: gure herrien, hirien eta lurraldeen egituraren isla zuzena da. Horixe izan da lerrootan eta hiruka.eus webgunean egunotan landutako erreportaje sortak aztertu gura izan duen xedea. Eta zu, zelan mugitzen zara eguneroko joan-etorriak egiterakoan?

TESTUAK ETA GRAFIKOAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HIRUKA** ▶

Oinez, bizikletaz, kotxez, busez zein metroz, askotariko moduetan egiten dituzte joan-etorriak egunero-egunero uribekostarrek. Eskualdea, orokorrean, ondo konektatuta dago, Bilbo hiriburuagaz batez ere, metroari esker gehienbat. Hala ere, oraindino ere bertoko hainbat herritar Metro Bilbaoren zerbitzuetatik kanpo daude eta, ondorioz, garraio publikoari dagokionez, Bizkaibuse-

ra zein tokian tokiko autobus-zerbitzuetara edota norberaren ibilgailura lotuta jarraitzen dute.

Metro Bilbaoren 2021eko Urteko Memoriaren arabera, metroak 17 geltoki ditu gurean, eta 12.269.191 lagunek erabili zuten zerbitzua urte horretan, sare horretako erabiltzaile gutzietan % 18,3a, hain zuzen.

Aurreko urteagaz alderatuta, metro-zerbitzuko erabiltzaileen kopurua nabarmen igo zen 2021ean (% 15,5), COVID-19aren pandemiaren hasierako urtearen ostean mugikortasunak bizi izan zuen susperraldiaren ondorioz; tokian tokiko eta unean uneko mugak kendu eta garraio publikoak erabiltzeko laguntzei esker izan zen hori. Kontuak horrela, Areeta, Algorta eta Erandio geltokiak izan ziren bidaiari gehien erakarri zituztenak, hurrenez hurren, eta hiruretan igoera handiak izan ziren, % 18 ingurukoak.

Gure eskualdeko geltokiak izan zuten hazkunde esanguratsuen artean, Urduliz nabarmentzen da (% 60ko), ziurrenik udalerrian eraikitako ospitaleak eta inguruko etxebizitza berriek eraginda; 2020ko ekainean inauguratutako Getxoko Ibarbengoako geltokiak ere erabiltzaile-kopurua bikoiztu zuen, baina kopuruak txikia izaten jarraitzen du, eskualdeko bidaiari gutxien hartu zituen estazioa baita. Ondoren, Lamiako, Aiboa eta Berango geltokiak izan zuten hazkunderik handiena, % 21-26 artekoak.

Orokorrean, erabiltzaile-kopurua handitu zen guztietan, Plentzian ez ezik; % 19ko jaitziera izan zuen 2020ko urteagaz alderatuta, 88.254 erabiltzaile galduta.

Bizkaibuseko datuen faltan, eta Bizkaiko mugikortasunean gure eskualdeak duen garrantzia kontutan hartuta, ondoriozta daiteke garraio pribatuak zer-zelako garrantzia duen inguruotan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako azken Mugikortasun Inkestaren arabera (2021), astegun buruzurietan 3,2 milioi joan-etorri zenbatu ohi dira, eta horien % 80 Bilbo Handiko metropoli-eremuan metatzen da, tartean, Uribe Kostan.

Hala ere, badira garraio publikoaren aldeko hautu kontzientea egiten dutenak, hala nola Jon Bildosola algortarra, zeinak aitortzen duen kotxea ahalik eta gutxien erabiltzen saiatzen dela: «Ez badut erosketa handirik egin behar, garraio publikoa hartzen dut. Lanera, adibidez, oinez joan naiteke. Gehien erabiltzen dudana metroa da eta Bilbora joateko erabiltzen dut».


Bestalde, Teresa Garcia Oviedok, Algortan bizi den 72 urteko eta urte luzez gidaria izandako emakumeak, azaldu du duela hilabete batzuk saldu zuela kotxea, eta garraio publikoan mugitzen dela gehienbat gaur egun. Hala ere, deitoratu du hainbat gabezia topatu dituela horretan eta badirela hainbat leku «isolatuta» daudenak: «Gune batzuetara ez da garraioa beharko lukeen moduan heltzen. Biztanleok ditugun beharrak administrazioak ez ditu betetzen».

Sare publikoaren baitan, BizkaiBizi bizikleta-mailegu zerbitzua eguneroko joan-etorrietarako erabiltzen dutenak ere badira gurean. Horren adibide da Pierre Cacharrez Calderon; sistema hori erabiltzen du Berangora lanera joateko, eta oso pozik dago aukera horregaz: «Oso ondo funtzionatzen du; hala ere, batzuetan, bizikletek kale egiten dute, eta mantenua hobetu beharko litzatekeela uste dut».


Uribe Kostan, gainera, beste garraiobide bat dugu Bizkaian beste inon ez dagoe-na: itsasadarraren alde biak lotzeko gasolino-a edo botea. Erandiokoak itxi zuen arren, Getxo eta Portugalete lotzen dituen pandemiaren aurreko urteko datuetara bueltatu da, 474.380 bidaiarigaz urtean. Horietako bat da Paula Fernandez portugaletetarra, Bizkaia Zubia erabiltzea baino gehiago botea gurago duena: «Askotan erabiltzen dut, ibaia zeharkatzeko esperientzia politagoa delako. Prezioa hobetuko nuke, baina ulertzen dut zubiarekin lehiatu beharra dutela».

AUTOA, UDALERRITIK KANPO MUGITZEKO JAUN ETA JABE. Gure inguruan, mugitzeko modurik

Eguneko desplazamenduak, sexuaren eta arrazoiaren arabera (%)



Eguneroko desplazamenduen banaketa (%) adinaren eta garraiobidearen arabera.



Oinezkoak nagusi gurean Oinez edo bizikletaz mugitzen gara gehienbat, baina herritik kanpo denean, garraio pribatua darabilgu batez ere

ohikoena oinez edo bizikletaz egitea da, norberaren udalerrri barruko eremuan; hortik kanpo, hala nola eskualde mailan zein lurralde barruan zein kanpoan, aldiz, desplazamenduen % 15 garraio publikoan egiten ditugu eta % 33 garraio pribatuan, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Inkestaren arabera (2021). Azken aukera hori bereziki nabarmena da metro-linearik ez duten udalerrietan –Barrika, Gorliz eta Lemoiz–, baina baita Plentzian ere; horietan guztietan, 0,8-0,9 ibilgailu artean daude 18 urtetik gorako pertsona bakoitzeko. Udalerrri handiene-

tan –eta konexio gehien dituztenetan–, aldiz, biztanleko ibilgailu kopurua nabarmen txikia-
goa da, hiri-egitura trinkoagoak eta garraio pu-
blikoaren eskaintza handiagoa dituztelako.

Juan Carlos Papadorrek, berbarako, egu-
nero hartu beharra du kotxea lanera joateko,
baina autobusa ere hartzen duela aitortzen
du, «gasolina aurrezteko». Hartara, «kotxea
eta autobusa konbinatzen ditut, nahiz eta ga-
rraio publikoan gehiago tardatu, hobeto ater-
ratzen zaidalako ekonomikoki».

**118.937 IBILGAILU ETA ELEKTRIFIKAZIOAREN
ERRONKA.** Uribe Kostak 118.937 ibilgailu zi-
tuen erregistratuta 2023an DGTren datuen
arabera, 2019an baino % 1,9 gehiago. Ho-
rietatik guztietatik ia erdia Getxon zeuden,
47.714, baina kopuruak apur bat jaitsi ziren
2019agaz alderatuta, orduan 48.588 baitzi-
ren (874 gehiago). Turismoek zuten –eta dute
gaur egun ere– pisurik handiena Getxon,
motozikleta eta ziklomotorren aurretik. Ga-
solinazkoak nagusi ziren (% 56 inguru), eta
elektrikoen kopurua oso txikia zen (265). Gai-
nera, ibilgailuen antzinatasuna ere handia
zen, 12 urtekoa batez beste; EAEn media 14
urtetik gorakoa da, eta Nafarroan are zaharra-
goak dira, 15 urte ingurukoak.

Gainontzeko udalerrietan, ibilgailuen ko-
purua handitu egin zen orokorrean 2019tik
2023ra, Urdulizen batez ere (% 22,7), eta guz-
ti-guztietan Getxoko eskema berdina errepi-
katzen da: turismoak nagusi, eta motozikle-
ten kopurua ziklomotorrena baino handiagoa
ia nonahi. Beribil elektrikoen presentzia oso
txikia zen oraindino ere, eta autoen batez bes-
teko adina 12 urteren bueltakoa.

**TRANSIZIO BERDEA ERREPIDEETAN, URRUN
ORAINDINO.** Datuok ikusita, Uribe Kostako
udalerrietan ibilgailu-flota zaharra eta ku-
tsakorra da nagusi. Getxo, Erandio eta Leioak
dira ingurumen bereizgarridun automobil
gehien dituzten udalerriak, baina «C» eta «B»
etiketa duten auto zahar eta kutsatzaileek
osetzen dute flotaren zatirik handiena.

Berbarako, Getxok 19.289 ibilgailu zituen
2023an «C» bereizgarriagaz eta 13.711 «B»
motakoagaz, eta ibilgailu elektrikoek (0 emi-
sioko etiketa) ez zuten % 1 gaintitzen: 502
baino ez zeuden erregistratuta urte horretan.
Antzeko joera izan zen Erandion (6.361 «C»
eta 5.300 «B»), baita Leioan ere (9.110 «C»
eta 6.623 «B»).

«ECO» edo 0 emisioko agiria zuten autoak
oso gutxi ziren udalerrri guztietan aztertutako
urte horretan. Lemoizen, adibidez, 11 ibilgai-
lu baino ez zeuden 0 bereizgarriagaz, eta Ba-
rrikan, 26. ◀

Uribekostarrei galdezka: Zelan mugitzen zarete eguneroko joan-etorrietan?



MARIA DOLORES PESQUERO

Autobusa batzuetan garaiz iristen da, baina
besteetan denbora luzez itxaron behar izaten dugu.
Gimnasiotik gatozenez, ordu erdi ere egon gara
zain. Hala ere, pozik gaude, etxeko atarian uzten
baikaitu. Duela 20 urte jarri zuten zerbitzua, eta
oso lagungarria da, batez ere ez dudalako gidatzen.



JON BILDOSOLA

Kotxea Getxon ahalik eta gutxien erabiltzen
saiatzen naiz. Erosketa handirik ez badut, garraio
publikoa hartzen dut. Lanera oinez joaten naiz,
zortekoa naiz! Metroa da gehien erabiltzen dudana,
Bilbora joateko. Maiz hartzen dut, baina arau eta
muga gehiegi dituela uste dut, hala nola txakur
handien debekua.



JUAN CARLOS PAPADOR

Kotxea egunero darabilt lanera joateko, nahiz eta
Getxon aparkatzea zaila izan, batez ere ostegunetik
aurrera, pintxopoteagatik. Garraio publikoa ere
erabiltzen dut, batez ere Bizkaibus. 8ko nota
emango nioke: gasolina aurrezteko erabilgarria da,
nahiz eta gehiago tardatu.



TERESA GARCIA OVIEDO

Duela gutxi kotxea saldu dut: 24 urtetik gidatu dut,
eta orain 72 ditut. Erraza izan da praktikan, baina
emozionalki gogorra. Zorionez, garraio publikoak
lagundu dit trantsizioan. Algortan bizi naiz, eta
nahiz eta metroa egon, Getxoko gune batzuk
oraindik isolatuta daude.



PIERRE CACHARREZ CALDERON

Lanera joateko Bizkaibizi erabiltzen dut,
Berangon lan egiten dudalako. Astero ibiltzen
naiz, maiztasun handiz. Oso ondo dabil, nahiz eta
batzuetan bizikletek huts egin. Horien mantenua
hobetu beharko litzateke, eta jendeak kontzientzia
hartu. Prezioa egokia da, urteko kuota ordainduta.



PAULA FERNANDEZ

Askotan erabiltzen dut botea, Bizkaia Zubia baino
gehiago. Pertsonalagoa da, gidariarekin harreman
zuzena dago eta esperientzia politagoa da. Prezioa
hobetuko nuke, baina ulertzen dut zubiarekin lehiatu
behar dutela. Normalean aisialdirako erabiltzen dut,
eta ez dut uste gaueko zerbitzurik behar denik.

Getxo Irisgarritasuna

Bidezabalgo arrapala mekanikoak berritzeari ekin dio Udalak

Algortako Bidezabal kalearen goiko aldean dauden arrapala mekaniko biak, 3.a eta 4.a, osorik berritzeko lanak abiatu dituzte, Udalak erositako azpiegitura berria hornitu ondoren. Arrapala horien aurrekontua 462.220 eurokoa da (% 21eko BEZa barne), eta lanak apirilaren amaieran amaitzea aurreikusten da. Gogoratu behar da azpiegitura horietako batzuk geldirik daudela «hainbat arrazoi tarteko». Arrapala berriak irristagaitzak dira, bandalismoaren aurkako gidak eta LED argiztapena dute, Udalaren sistemagaz koordinatuta. Babes elektrikoa ere badute, eta karbono aztarna murriztu da fabrikazioan eta horien horniduran, iturriek zehaztu dutenez. Kale horretako beheko aldean dauden arrapalei dagokienez, lehenengo eta bigarrenak, berritzeko obrak esleipen fasean daude (610.000 euro). Iturriek gogoratu dute gobernu-taldearen eta PPren arteko akordioak jasotzen duela proba pilotu bat: arrapala bat estali eta gainontzekoakaz funtzionamendua alderatzea; 80.000 euroko inbertsioa izango du horrek.

Epeak laburtzeko, hornidurarako eta fabrikaziorako behar den denbora luzea denez, lan batzuk aurreratuko dituzte, hala nola espezie inbaditzailearen zuhaitzak kentzea eta koniferoak berreskuratzea, aldameneko berdeguneetan birlandatzeko. Ale horiek kenduta, arrapaletan fruitu, hosto eta adar gehiegi erortzeagatik arriskuak eta afekzioak saihestu gura dituzte.

Era berean, iragarri dute Salsiduko arrapalak ere aztertzen ari direla, 2025etik 2026ra modernizazio partziala egiteko. ◀

Getxo «Irurak Bat» auzia

Eraikina baimenik gabe eraisteagatik kondenatuta

Getxoko Udalak 50.000 euroko isuna ezarri dio Ereaga Atalaya enpresari, Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakian, baimenik gabe lau fatxadak eraisteagatik.

Getxoko Udalak 50.000 euroko zigorra ezarri dio Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakian 12 etxebizitza eraikitzeko proiektua sustatu zuen Ereaga Atalaya enpresari. Zehapen-espeditentean aurkeztutako alegazioak ezetsi ostean hartu du erabakia, eta zigorraren arrazoia nahitaezko hirigintza-lizentziarik gabe eraikinaren lau fatxadak eraitea izan da. Arauhauste hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 225.2 b) artikulua arabe-ra, larrizat jo du gobernu-taldek.

Zigorraren berri izan ostean, Elkarrekin Podemosek adierazi du «txantxa» dirudiela eta Udalak ez duela kontuan hartu «Irurak Bat» eraikina elementu babestua zela. Salatu dute, gainera, borondatezko ordainketagaz enpresak 32.000 euro baino ez duela ordainduko. «Ordea, oso larrizat jo izan balitz, 500.000 izan zitezkeen. Azkenean, enpresa eraikitzaileari kontura ateratzen zaio eta etorkizunerako aurrekari txarra izango da», ohartarazi dute.



2024ko abuztuan bota zuten eraikina.

EH Bilduk ere ez du nahikotzat jo isuna eta gogoratu du babes bereziko eraikina zela. Koalizioak salatu du Udalaren gardentasun falta eta jarduera eza, eta gogoratu du Bizkaiko Fiskaltzara jo zuela 2024ko urrian, eta eskatu ere Udala akusazio partikular moduan aurkeztea. Era berean, Udalak neurri zorrotzagoak har ditzala exijitu du, etorkizunean halako egoerak errepika ez daitezen. «Oso merke aterata da tokiko ondarea botatzea, isun honek ez du etorkizunean bestelako enpresei irregulartasunak egitea eragozten». ◀



Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



GIZONEZKO MODA



ALGORTAKO ETORRIDEA 59



Leioa eta Erandio Hirigintza-proiektua

700 etxebizitza egin gura dituzte Dow Chemicalen

Erandioko eta Leioako udalek adostuko duten hirigintza-hitzarmenaren bitartez, ia 700 etxebizitza eraiki gura dituzte 135.000 metro koadroko eremu horretan.



2009an itxi zuen lantegiko lurretan 300 enpresentzako parkea zegoen aurreikusita, 24 solairuko dorre bigaz, baina egitasmo hori baztertu egin dute etxebizitzaren mesedetan.

Axpe eta Udondo inguruan zegoen lantegi historikoaren lurretan egin gura duten hirigintza-proiektuaren inguruko lehen informazioen arabera, egitasmoak inguru hori erabat eraberrituko luke, berdeguneakaz, aparkalekuakaz eta ia 700 etxebizitza berrigaz; horietatik %60 libreak izango lirateke, % 20 Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE) eta beste % 20

etxebizitza tasatuak. Era berean, iragarri dute 44.600 metro koadro ekipamenduetarako eta jarduera ekonomikoetara ere bideratu gura dituztela.

KRITIKAK. EH Bilduk proiektua kritikatu du, eta salatu du proposamenak etxebizitza librearen lehenesten dituela. Horrez gain, azaldu dutela HAPO aldatu beharko litzatekeela hori egiteko, eta ingurumen-arriskuengatik ere kezkatuta agertu dira, gogorarazi baitute Azti ikerketa-zentroak Astrabudua eta Lamiakoko hezeguneak berreskuratzeko aukera planteatu zuela. Era berean, eremuaren uholde-arriskuaz ere ohartarazi dute, proiektuaren bideragarritasuna eta segurtasuna zalantzan jartzen duen puntua. ◀

ARTOLOZAGA ANAIAK Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Bidaia hasi baino lehen gomendio batzuk...

Bidaia baino lehen **komenigarria da tailerrera joatea, aurre-azterketa eta sistema guztien ordenagailu bidezko diagnostiko elektronikoa egiteko.**

- Ibilgailuaren likido-mailak konproba itzazu.
- Pneumatikoen marraskia eta errodaduraren banda behatu, zein puntutaraino higatuta dauden jakiteko. Karga altuko kasuetan, presioa zaindu, ordezko gurpilean ere.
- Indargetzaileak eta argiak behatu.
- Haizetako-garbigailuek egoera ezin hobean egon behar dute.
- Matxura kasuan erabili beharko diren tresnak behatu. (triangelu-seinalea, txaleko islatzailea, katua, uhalak, erremintak, argiak eta fusibleak aldatzeko ordezkoak ...).



talleresartolozaga.com
946 763 814
Gatzarriñe Kalea, 42
SOPELA



Gorliz Birgaitzeko obrak

Hondartzako egurrezko zubiko lanak aurrera doaz



GORLIZKO UDALA

Hondartzako egurrezko zubia birgaitzeko obrek aurrera jarraitzen dute, azpiegituraren segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko xedeagaz. Otsailaren 19an hasi zituzten obrak, eta hiru hilabeteko iraupena aurreikusi zuten. Desmuntatze-fasea normaltasunez amaitu bada ere, une honetan lanak geldirik daude material berria jasotzeko zain, hornidura-arazoez atzerapenak eragin baitituzte. Hala ere, aurreikuspenen arabera, lanak apirilaren 7ko astean hasiko dira berriro ere. Hala, hasierako fasea gorabeherarik gabe amaitu da, aurreikusitako epeak betez. Obra hauek argiztapen-sistema hobetuko da, ingurumen-eragina murrizteko eta etorkizuneko mantentze-lanak errazteko. ◀

Gorliz Pinudien babesa

Pinudiko barbakoak kendu dituzte, ingurunea zaintzeko

Herritarrei pinudiaz gozaten jarraitzea gonbidatu die Udalak, sua erabili beharrik ez duten jarduerak sustatuz. Ingurune seguru eta jasangarriagoa bermatu gura du.



Bizikidetzak hobetzea beste helburuetako bat da. HODEI TORRES

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gorlizko pinudiaren kudeaketaz eta mantentzeaz arduratzen den erakundeak, bertan zeuden barbakoak kentzea erabaki du. Gorlizko Udalak neurri hori babestu du, bizikidetzak hobetzeko, ingurumen-inpaktua murrizteko, hondakinak gutxitzeko eta baso-suteen arriskua ekidite-

ko helburuagaz. Izan ere, 2024ko udan, Gorlizko Udala Ertzaintzagaz eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz batu zen jazo ziren gertaerak kudeatzeko: gizalegearen aurkako portaerak gora egin zuten eta, ondorioz, herriko lagunek ez zuten ia eremu hori erabiltzen. Bertan zeudenean ere, ingurua oso egoera txarrean topatzen zuten herritarrek. ◀

English SUMMER Play-School
2 to 12 YEAR-OLDS
July 9.00 - 13.30h
outdoor activities
fun & games

- Jantoki until 15.00h. (optional)
- 2nd. brother/sister - 50% discount.
- 3rd. brother/sister - FREE

INFORMATION & INSCRIPTIONS
946 763 012
663 628 828
info@hamiltonidiomas.com

hamiltonidiomas.com | sipiri kalea, 11 | Sopela

RPS 65/17

ARANTZA ETXEBARRIA
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA | 944 307 696

Sopela Gure Lurreko Merkatua

Baserrietatik zuzenean ekarritako produktuak salduko dituzte zapaturo

Hurbileko nekazaritzari bultzada bat emateko asmoz jarri du martxan Gure Lurreko Merkatua Sopelako Udalak. Martxoaren 29an estreinatu zuten ekimena, eta zapaturo egingo dute.

Hilero, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara, Gure Lurreko Merkatu egingo dute Larrabasterrako Urgitxieta plazan. Bizkaiko baserriarrek, baina, bereziki, Sopelakoek edo Uribe Kostakoek, zuzenean ekarriko dituzte eurek ekoiztiko produktuak merkatura. Besteak beste, barazkiak, fruta, ogia, ezta eta txerrikiak erosteko aukera egongo da. Martxoaren 29an, inaugurazi-egunean, honako ekoizle hauek parte hartu zuten: Jon Bastante (Zornotza), Jon Ander Zalduegi (Bakio), Jagoba Galarza (Artea), Mañeko (Mallabia) eta Patricia Gutierrez (Lezama). Ekoizleez gainera, taloak, musika eta dantza plaza egon ziren egun berezi horretan, eta herritarrek gogoz hartu zuten ekimena. «Merkatuaren bitartez, kontsumo jasagarria

Integrazioa bidean

Ekimenak herritarrek Larrabasterra inguruan dinamizazio-ekintza gehiago egiteko eskaerari ere erantzuten dio, Sopela integratzaileagoa lortzen laguntzeko bidean. Tokiko Garapen Sailak bultzatu du ekimena, Jata Ondo Uribe Eskualdeko Landa Garapenerako Agentziagaz eta Aldundiko Natur Ingurune eta Nekazaritza Sailagaz lankidetzan.



eta tokiko garapena sustatzen laguntzea espero dugu, eta herritarrek ekoizleen lana eta produktuen kalitatea balioan jartzea», adierazi du Eder Garcia Sopelako Toki Garapeneko zinegotziak. Hala, ohitura berri bati hasiera eman diote Sopelan. ◀

LABORAL Kutxa -k eta AMA Tolosa -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxa eta **AMA Tolosa** bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta **2 lagunentzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu** batean*.



HARTU PARTE HEMEN:
laboralkutxa.com/eu/
babesleak-ama-tolosa



*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 lagunentzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 lagunentzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.

LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

Uribe Kosta Sexu-genero disidenteen jaialdia

«Egoera berrietara egokitze gaitasuna erakutsi dugu»

Ukatuk 6 urteko ibilbidea ospatuko du apirilaren 12an, Danontzat gaztetxean antolatu duten jaialdian. Hala, asanbladako kideakaz berba egiteko aukera izan dugu.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Nola baloratzen dituzue 6 urte hauek? Oso balorazio positiboa egiten dugu. Uribe Kostako sexu-genero disidenteen asanbladak sei urte hauetan gure komunitatea indartu eta erreferente bihurtzea lortu du. LGTBQ+-fobiari kolektiboki aurre egiteko mekanismoak antolatu ditugu, eta eskualdean eremu seguruak sortzeko lan egin dugu. Mobilizazioez gain, hitzaldiak, jardunaldiak eta ospakizun bereziak antolatu ditugu, gure identitate eta borroka aldarrikatzeko.

Taldea sortu zenutenetik gaur egun arte, zein erronka izan dituzue? Pandemia globalak herri mugimendua ahuldu zuen, eta eskuin muturraren gorakadak gure eskubideak mehatxatzen dituzten diskurtsoak normalizatu ditu. Hala ere, guzti horietatik indartuta irten gara. Hasieran, gure helburua argia zen: Uribe Kostan Transmaribollo borrokarako eremu bat sortzea, hiri handietara joan behar izan gabe. Saretu, artikulatu eta gure borroka ikusgarri egitea bilatzen genuen, jai-giro hutsean geratu gabe, herri-mugimenduaren parte aktibo izatea eta gure agenda propioa ezartzea. Helburu horiek lortu ditugula esan genezake. Etengabeko eraldaketan egon gara, gure izenean bertan islatzen den bezala. Hasieran Transmaribollo Asanblada ginen, eta gaur egun sexu-genero disidentziaren asanblada gara. Eztabaidak eta hausnarketak etengabeak izan dira, eta egoera berrietara egokitze gaitasuna erakutsi dugu.

Non daude jarrita orain zuen indarrak? Hiru ardatz nagusitan zentratzen dira: aliantzak garatzea, eremu seguruak sortzea eta aurrean ditugun mehatxuen aurrean irmoki kokatzea. Batetik, argi daukagu bakarrik ezin dugula borrokatu; horregatik, ezinbestekoa da bes-



Ukatuk 6 urte beteko ditu aurten. HODEI TORRES

APIRILAK 12
URIBE KOSTAKO SEXU-GENERO DISIDENTEON ASANBLADAREN VI. URTEURRENA

12:00 Mahai-ingurua: Aliantza kuir eta lodiak
Mijo Lizaraburu eta Magda Piñeyro
(Batera sorbitilo de protección)

13:30 Marianitada

15:00 Bazkaria (aukera beganoa egongo da)

16:30 Pomada banda

17:30 Vogue tailerra

19:00 Baffle poteo kuirra

21:00 Ay Dragmela

22:00 Ekitaldia

22:30 Mikosia

00:00 DJa: Plazaratu kolektiboa

DANONTZAT GAZTETXEAN
Danontzat 2. floor

BAZKARIAN
Izena onartzeko

Bazkaria: 10€
Kontzertak: 5€
Buztea: 1,5€

EZ DUGU INOLAKO ERABOKERIK ONARTUKO

Egitaraua:

- 12:00 Mahai-ingurua: Aliantza kuir eta lodiak Mijo Lizaraburu eta Magda Piñeyrogaz.
- 13:30 Marianitada.
- 15:00 Bazkaria (aukera beganoa egongo da).
- 16:30 Pomada banda.
- 17:30 Vogue tailerra.
- 19:00 Baffle poteo kuirra.
- 21:00 Ay Dragmela.
- 22:00 Ekitaldia.
- 22:30 Mikosia.
- 00:00 DJa: Plazaratu kolektiboa.

telako borroka eta eragileekin aliantzak erakitzea, eskuin muturraren eta faxismoaren gorakadari modu kolektiboan aurre egiteko. Bestetik, gure komunitatearentzat eremu seguru eta disidenteak garatzen jarraitu behar dugu. Eta, azkenik, ezin gara mututu; argi eta garbi posionatu behar gara mehatxuen aurrean, transfobia estrukturala gaitzetsi egiten dugu. TERF-en diskurtso eta erasoen aurrean tinko erantzuten jarraituko dugu eta ez ditugu horrelako jarrerak onartuko.

Zer nolako egitaraua prestatu duzue apirilaren 12rako? Egitarau oparoa prestatu dugu; hitzaldi, ikuskizun eta festa-giroko ekintzak uztartuz. Garrantzia eman diogu, batetik, aliantzen eta borroka ezberdinen arteko loturak azpimarratzeari, eta, bestetik, gozatzeko, ospatzeko eta saretzeko eremuak sortzeari.

Etorkizunerako asmo berezirik duzue? Epe motzean, hurrengo hitzordua maiatzaren 17a izango da, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. Borroka-egun garrantzitsua da guretzat, eta mobilizazioak eta ekimenak antolatuko ditugu sistema zisheteropatriarkalaren indarkeria eta diskriminazioaren aurka. Epe luzera, gure helburua argia da: sareak ehuntzen jarraitzea eta sistema bera errotik iraultzea. Ez gaude hemen tolerantzia eske, ez dugu onarpen apalik bilatzen. ◀

Plentzia 100 urte

Plentzia Kirol Elkarteak hainbat ekitaldi egingo ditu mendeurrenean

Plentzia Kirol Elkarteak 100 urte betetzen ditu aurten, eta mendeurrena ganoraz ospatzeko programa zabala prestatu dute hurrengo hilabeteetarako: erakusketa, txapelketak eta kirol topaketak, besteak beste.

Ekitaldiak maiatzaren 9ra arte egingo den erakusketagaz hasi ziren Plasentia de Butron museoan. Ondoren, kirol jardunaldi bat egingo dute Errotabarrin, apirilaren 6an, Garapen eta Bakerako Kirolaren Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere. Maiatzaren 31n, klubaren festa handia ospatuko dute kalejira, partida bereziak, bazkari herrikoia eta kontzertuak izango dituen egitarauagaz. Uztailaren 4an, kirolari buruzko mahai inguru bat ere egingo dute Plentzia Itsas Estazioan, eta, abuztuan, herriko arraun eta errugbi taldeakaz batera txapelketa egingo dute Errotabarrin.

Jai handia urriaren 12an egingo dute Mendeurrenaren Egunean, bertan, Plentzia, Athletic eta Errealeko veteranoek partidua jokatu baitute. Egun horretan zozketa solidarioa ere egingo dute bertaratzen direnen artean. ◀

Plentzia Ekonomia

Eraberritu eta Garatu programen deialdi berriak egin dituzte

Plentziako Udalak laguntza ekonomikoetarako programa bi onartu ditu herrian dauden establezimenduen modernizazioa eta enpresa berrien sorrera sustatzeko.

Batetik, Plentzia Eraberritu 2024 programa hiribilduko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimenduetan inbertsioak finantzatzera bideratuta dago. Laguntza honek LED argiztapenerako trantsizioa, Ticket Bai/Batuz sistema ezartzea, digitalizazio-aparatuetan inbertitzea eta euskarazko komunikazio-materialak diruz lagunduko ditu, besteak beste. Bestalde, Plentzia Garatzen 2024 enpresa-proiektu berrien sorrera finantzatzea du helburu, garapen ekonomikoari eta herrian enplegua sortzeari laguntzeko, hain zuzen ere. Deialdia apirilaren 22ra arte egingo da zabalik. ◀



Gure ikasleen ahotan



«Mondragon Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana irakasleekiko gertutasuna da»

UXUE AURREKOETXEA ALEGRIA

Herria: Plentzia

Egindako ikasketak: Batxilergo teknologikoa

Gradua: Humanitate Digital Globalak

Zaletasunak: igeriketa, mendia, animaliak, irakurri...

Humanitate Digital Globalak - HDG graduko 3. mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Humanitate Digital Globalak gradua aukeratu nuen, batxilergo arte irakatsitako metodologia tradizionala ez zitzaidalako gustatzen eta argi neukan unibertsitatean ez nuela horrela jarraitu nahi. Nire familiar batek Mondragon Unibertsitatean ikasi zuen eta hasieran LEINNen izena ematea pentsatu nuen arren, gradu hau ikusi bezain pronto jakin nuen niretzako zela.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Gradu honek hainbat arlo sozialetatik edatea ahalbidetzen du eta hori oso aberasgarria iruditzen zait; izan ere, mundu konplexu honetan begirada multidimentsional bat edukitzea gero eta garrantzitsuagoa zaigu hainbat arazo zein problematika ulertzeko. Gainera, HDGk arazo eta problematika ezberdinei proiektu errealean bidez aurre egiteko aukera ematen du, horrela ikasitakoa praktikara eramanez.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Gure ikasgaiak moduluetan antolatzen dira, hauek lau eta sei aste bitarteko iraupena daukate, modulu bakoitzean arlo jakin

bateko konpetentziak garatuz. Interesgarriena aurreko galderan aipatutakoa iruditzen zait, hau da, teoria eta praktika uztartzen direla proiektu errealean bidez. Lan gehienak taldeka egiten dira, nahiz eta banakako lanei ere lekua utzi. HDGk talde lanean jarduteak dituen zailtasunetan trebatzen zaitu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaidana?

Mondragon Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana irakasleekiko gertutasuna da. Honek edozein gauzetan lagundu zaitzake. Tutore pertsonalen zein irakasleen jarraipen bidez, norberarekiko ikasketaren plan pertsonalarekin gertutik jarraitu eta laguntzen zaituzte (praktiketan, 3. mailako espezialitatean aukeraketan, GBLan, etorkizunera begirako lanetan...).

Etorkizunari begira zein asmo daukazu?

Etorkizun urrunerako ez daukat asmo zehatzik, baina, hurbilera begira, aldiz, ikasten eta ezagutzak garatzen jarraituko dut. Gainera, 3. maila honetan ditugun praktika curricularretan asko ikastea eta lanerako hurbilpen gisa erabiltzea espero dut. Azkenik, gustatuko litzaidake nire etorkizuneko ikasketen zatiren bat atzerrian egitea, Mexikon izandako esperientzia batek gauza asko ikasteko balio izan dit eta.



**Euskarari
atara kontuk!**

JOANES ATXA OLAIZ

Ba al dago otzorik Uribe Kostan?

Azkenaldian han-hemenka ibili da otsoa: Bizkaiko artaldean, Larrungo magaletan eta komunikabideetako titularretan. Horrek nire buruari galdera asko egitera bultzatu nau: Otsoa al da Bizkaiko mendibasoetan gelditzen den harrapakari handi bakarra? Edo hartzak ere badaude Bizkaian? Eta Uribe Kostan? Eta, bidenabar, nola esaten diegu otsoari eta hartzari gurean? Zenbait erantzun berehala bururatu zaizkit, noski. Ez, Bizkaiko mendietan ez dago hartzaren arrastorik, eta Uribe Kostan otzorik dagoenik ere, ez nuke esango. Hala ere, horrek ez du esan nahi uribekostarrok animalia hauek izendatzeko modurik ez dugunik eta, harrigarria badirudi ere, oso lotuta daude bien izenak. Otsoa izendatzeko, hainbat aukera ditu gure hizkerak. Orokortuena *lobo* da. Erdararik hartu genuen mailegu eta Bizkaiko ipar-mendebalde osoan erabiltzen dugu. Honekin batera, ohikoak dira *basaxakur* eta *lobotxakur* hitzak ere, Mungialdean batik bat. Eta hartza izendatzeko? Hona hemen bitxikeria. Bizkaia osoan, oro har, *otzo* da hartza izendatzeko termino nagusia. Badirudi, erdarazko «oso» hitza hartu genuela mailegu, eta bilakaera fonologikoaren ondorioz sortutako hitza dela. Bizkaian ez ezik, beste zenbait herritako lekukotasunetan ere jaso da «otso» hitza, hartzari erreferentzia egiteko. Garai batean gure eskualdean hartzari «otzo» deitzea forma orokortua zen, baina gaur egun galbidean dagoen adiera da. Hartzekin dugun kontaktu urriaren ondorio ote? Berdin gertatuko zaie basaxakur edo lobotxakurrei ere? Batek daki. ◀

Berango Auzoa berrurbanizatzeko prozesua

Lantzarteko parkingak hautsak harrotu ditu auzoan

Auzoa birmoldatzeko proiektuaren baitan, Udalak 90 plazako aparkalekua eraiki gura du aparkalekuan, eta horrek haserrea eragin du auzokide askoren artean.



Lantzarte Bizirik elkarteok protestak egin dituzte egunotan. HODEI TORRES

Berangoko Udalak 90 plaza izango dituen aparkaleku bat eraikiko du Lantzarte auzoko berdegunean, inguru hori berrurbanizatzeko prozesuaren lehenengo fasearen baitan –bigarrena laster abiatuko dute–. Proiektuak haserrea eta kezka sortu ditu auzoan, Lantzarte Bizirik elkartearen arabera, jarduketak indarrean dauden hirigintza- eta ingurumen-araudiak urratu ditzakeelako eta gobernu-taldeak (EAJ) herritarren proposamen bideragarriak baztertu dituelako.

Udalaren esanetan, aparkalekua beharrezkoa da, gaur egun 80 plaza baino ez daudelako inguruan errol-datuta dauden 215 ibilgailurentzako. Gainera, gogoratu du proiektua EAJren Agintaldi Planean jasota dagoela eta herri-galdeketa baten babesa duela. Hala ere, bizilagunek salatu dute kontsulta prozesu hori ez dela bidezkoa izan, botoa garajetik ez zuten herritarrei soilik mugatu zutelako. Horrek, euren ustez,

proiektuaren zilegitasuna zalantzan jartzen du.

Alternatiba gisa, Lantzarte Bizirik elkarteak proposatu zuen autobus-geralekuaren atzean 52 plazako aparkalekua egitea, eta, behar izanez gero, bigarren fase batean beste bat edukiontzien ondoan. Azaldu dutenez, proposamenak ingurumen-inpaktu txikiagoa izango luke, baina Udalak baztertu egin du, «inola-ko justifikaziorik gabe».

Era berean, auzotarrek salatu dute Udalak ez duela gardentasunez jokatu, eta berdegunean egingo den obrak –zelaiaren % 21 hartuko du– etorkizunean bestelako eraikuntzak ekar ditzakeela. Horren aurrean, alkateak ukatu egin du hori, eta ziurtatu du ez dela etxebizitzarik eraikiko bertan.

Auzokideek iragarri dute dabor-duko 150 sinadura bildu dituztela parkingaren kontra, eta pankartak jarri eta protestak antolatu dituzte. Hala ere, Udalak dio aurrera egingo duela proiektuagaz, interes orokorrekoa defendatuta. ◀

TXAKO *mic!*

Apirilak 12

Mendibile Jauregia (Leioa)

Apirilak 13

Txakolin Museoa Txakolingunea (Bakio)

Marrazketa zuzenean

Dastaketak

Tailerrak

Showcooking

Kontzertu marraztua

Informazioa eta erreserbak



<https://bizkaikotxakolina.eus/eu/>



Getxo-Urbe Kosta Xabier Galdeanoren hilketaren 40. urteurrena

«Gizon lasaia zen, inplikaturua eta langilea»

Martxoaren 30ean 40 urte bete ziren Xabier Galdeano GALEk hil zuela Ipar Euskal Herrian. Pertsona langilea eta militantea, bere ondareak bizirik dirau, besteak beste, San Nikolas Ikastolaren sustapenean eta *Egin* egunkariaren sorreran egindako lanean.

ANDER ZARRAGA ▶

Bere alabek, Karmenek eta Begok, harrotasunez eta emozioz gogoratzen dute bere irudia. «Urtero, data hurbiltzen denean, barruak mugitzen zaizkigu, gogorra da berriz gogoratzea, baina aurrean 40 urte betetzen dira eta, beraz, merezi du omenaldi berezia egitea», aitortu du Bego Galdeanok. «Guretzat gogorra da ospatzen diren ekitaldi guztietan gertatutakoa behin eta berriro gogoratzea, baina egin beharreko zerbait ere bada», gaineratu du Karmen Galdeanok. Halaber, biek adierazi dute beti sentitu izan dutela hurbiltasun eta babes hori, batez ere Algortan, eta hori asko eskertzen duten gauza da, «horrek indarra eman digulako».

Beraien berbetan, Xabier Galdeano pertsona lasaia eta hurbila zen, beti laguntzeko prest, baina ez zuen nabarmenkeriaz egiten. «Ez zuen protagonismo hori behar, berak gauzak egiten zituen eta denetan sartuta zegoen, baina beti isilean, arreta deitu gabe», gogoratzen du Karmenek. Horren adibide izan zen San Nikolas Ikastolaren sorreran izan zuen inplikazioa, funtsezkoa izan baitzen horren garapenean.

SAN NIKOLAS IKASTOLA. «60ko hamarkadan, gu ikastolan hasi ginenean, bera horren sorreran egon ez bazen ere, laguntzeko beharra ikusi zuen hor, eta horretan ere sartu zen», dio Begok. Besteak beste, konpromisoak bere etxea lagatzera ere eraman zuen, proiektuaren hasieran eskolak eman zitezten. Gainera, familiako eraikuntza-enpresari esker, ikastolako lehen eraikinaren sorreran ere parte hartu zuen. «Orduan gu oso txikiak ginen, baina gerora jakin genuen bera Madrilera ere joan behar izan zela baimenak-eta eskatzera; izan ere, Ikastolan hasi ginenean, ez zekiten titulazio hark balio izango ote zigun ala ez, beraz, bera Madrilera hainbatetan joan zen baimenak-eta eskatzera», azaldu du Karmenek une haiek gogoratuta.

Alabek diotenez, Xabier beti izan zen gizon jantzia, «bere lanagatik-edo askotan joaten



«Bilbotik Hernanira joan zen. Han urte batzuk eman eta gero, Ipar Euskal Herrira joan zen erbesteratuta. Han, *Egin* ez zen hainbat lekutara heltzen, beraz, bera hasi zen guztia antolatzen, egunkariak banatzen, kioskoz kiosko joaten, argazkiak ateratzen, telefonoz kronikak egiten... Han erbesteratuta zeuden gazteei ere laguntzen aritu zen, eta zeukan presentziarekin prefekturara joaten zen paperen bila, edo beraiantzako alokairuak lortzera»

zen trajearekin, baina horrek ez zion kentzen gauzak egin behar zirenean beti prest egotea: Madrilera joan behar bazen, hara joaten zen, Ikastolako jairako tortillen bila joan behar bazen edo txosna muntatu behar bazen, bera arduratzen zen».

«Gogoratzen dut ikurrina oraindik legez kanpokoa zenean, berak etxeko txokoan tailer bat muntatu zuela; hainbat tela ekarri zituen eta amama guztiak eta herriko hainbat gazte jarri zituen josten, eta dozenaka ikurrina atera zen handik. Berak hainbat kontuan parte hartu zuen, lagundu ahal zuen guztietan ibili zen, sentsibilitate handiko pertsona zen», kontatu du Begok.

EGINEKO BULTZATZAILEA. Mariasun Monzon, *Egin* eta *Garako* kazetari ohiak ere gaztetatik ezagutu zuen Galdeano eta, «topikoa iruditu arren», berak ere azpimarratu du gizon apala zela, oso hurbila eta inplikaturua. «Berdin zion egunkariak banatu behar baziren edo Madrilera joan behar bazen diru-laguntza baten bila, bera prest zegoen horretarako. Niri ere asko lagundu zidan, eta aita baten modukoa ere izan zen, baina seguru beste gazte askorentzat ere horrelakoa izan zela».

«Franco hil ondoren, *Egin* sortzen ari zenean, herriaren ahotsa izango zen komunikazio-proiektuaren behar hori ere ikusi zuen, eta horretan inplikatu egin zen», gogoratu du Begok. Kazetaria ez bazen ere, bere sentsibilitateak eta konpromisoak bultzatuta, Bizkaiko ordezkari izatera eraman zuen. «Oso kargu ponposoa jarri zioten, baina gero berak beste lan asko ere egin zituen, adibidez, herriz herri ibili zen finantziario bila edo egunkariak banatzen, egiten zuena militantziagatik ere egiten zuelako», dio Karmenek.

ATXILOKETAK. Berak, Maribe Prieto emazteak eta euren familiak jasan zuten jazarpen politikoak garai hura markatu zuen; alabek azaldu dutenez, orduan bizitakoa oraindino dute gozoan. Euren aita behin baino gehiagotan atxi-



Martxoaren 30ean, omenaldia egin zioten Galdeanori Algortako San Nikolas plazan, bere hilketaren 40. urteurrenean.

lotu zuten, eta espetxean ere egon zen, ETaren posta gisa jardutea egotzita edo taldeko kideak etxean hartzea leporatuta. «Gogoan dut egunkari batean aipatu zutela Xabier Galdeano 'dotore jantzita' joan zela epaitegira, gainerako presoak ez zihoazelako gorbatarekin», gogoan du Begok.

Karmenek gaitzetsi du poliziaren presioa areagotu egin zela ETak Lipperheide bahitu zuenean: «Polizia gure familia zelatatzen aritu zen, pentsatzen baitzuten, aita eraikuntzan lan egiten zuenez, bere lonjaren batean izango zutela». Orduan erbestera itzuli zen Ipar Euskal Herrira.

Begok azaldu duenez, «hasieran, GAL agertu zen arte, denok lasaiago geratu ginen, han ere zorionsua zela esaten baitzigun, hango giroa oso desberdina zelako». Hala ere, GALen hilketak hasi zirenean, segurtasun sentzazioa desagertu egin zen. «Esaten zigun ez kezkatzeko, baina bagenekien ohartarazi ziotela oso erraza zela bera jarraitzea, beti ibilbide bera egiten zuelako».

Kereila

GALEN 18 biktimak eta euren senideek, Egiari Zor Fundazioagaz eta Giza Eskubideen Behatokiagaz batera, kereila bat aurkeztuko dute Jose Barrionuevo Barne ministro ohiaren aurka, GALen jardueragaz lotutako gizateriaren aurkako ustezko delitu batengatik. Salaketak giza eskubideen urraketengatik erantzukizunak ezartzea eta krimen horiek zuzitzeko saiakerak geldiaraztea du helburu. Abokatuen esanetan, froga sendoa dituzte eta Felipe Gonzalez eta Baltasar Garzon bezalako pertsonen deklaratzeko eskatuko diete.

«Bera hil zuten egunean gu han geunden. Baionan, GALEk *Les Pyrenees* kafetegian egindako ekintza salatzen manifestazioa egon zen eta gu berarekin joan ginen. Aitak argazkiak atera zituen eta karretea Hernanira autobusean bidaltzera joan zen, gu erosketak egitera joan ginen bitartean. Joan aurretik, karretea bukatzeko argazki batzuk egin genituen etxe aurrean, txantxetan esan zuten bera gogoratzeko argazkiak izango zirela. Buelta-egin ginean, ambulantiak ikusi genituen eta jende pila bat zegoen gure etxe azpian», gogoratu du Karmenek.

Donibane Lohitzuneko Urdazuri auzoan hil zuten Galdeano, 1985eko martxoaren 30ean. GALEk hartu zuen bere gain algortarraren hilketak, eta horren egileak izan ziren mertzenarioak atxilotu eta espetxeratu zituzten, baina agindua nork eman zuen argitzeko auziak zabalik dirau oraindik, 40 urte geroago. ◀



Zentralaren beste aurpegiak

«Egon ez zaren herrialde batera bidaiatzea bezalakoa da». Hala azaldu du Ixone Sadaba artistak 4 urteko prozesuan Lemoizko zentral nuklearraren tripetara egindako espedizioa. 2021etik eremu historiko hori hurbiletik ikertzen ibili da, argazkien bidez 40 urte itxita daraman toki baten esentzia harrapatu guran. Orain, beste kontakizun batzuetarako hasiera abiatu gura du Azkuna Zentroan dagoen *Escala 1:1* erakusketaren bidez. Jendea zentralera sartu ezin bada, zentrala jendearengana hurbildu dadila.

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIAK: IXONE SADABA



Lau urteko prozesu komplexu eta luzea bizi izan du Sadabak: alde batetik, oztopo burokratiko andana izan ditu 40 urtez itxita egon den zentralera sartzeko. Halaber, arazo fisikoak ere egon dira: ingurunea behatuta egon arren, zentrala «oso egoera txarrean» dagoela nabarmendu du. Gainera, azpiegitura handiei argazkiak ateratzeko kamera ezberdinak erabili behar izan ditu. Horretarako ingurunea asko esploratu dute, historiaz betetako kale hutsak behin eta berriro zeharkatuz.



Ikerketa hasterakoan, pisu historiko handia zuen gertaera bati egin zion aurre artistak, eta, aldi berean, erabat ezezaguna zitzaion zerbaiti ere: zentralera sartu eta ingurua ondo ezagutu arte, ez zuen ondo jakin zer argazki mota egin gura zuen. «Banekien Lemoizen kontakizun hegemonikoan sartzen ez zen lan bat egitera nindoala: desarrollismoa, kolonialismoa, huts egindako trantsizioa, ingurumen-indarkeria, kolapsoa, antropozenoa, hormigoiazen bizitza mugatua... Nire tesia zen artearen bidez kontakizuna ireki gura nuela». Hala, argazkilariarentzako, Lemoizko zentralak historia garaikidea zeharka gurutzatzen du, «1972ko frankismoarik garbientetik, gaur egun arte, nuklearrak mahai gainean ditugula berriro ere».

Lehenengo aldiz zentralera sartu zenean, bere sentipena izan zen Ukrainan zegoela. Arreta deitu zion lehenengotarikoa eskala izan zen. «Gaur egun, zentrala goitik bakarrik ikus daiteke, goiko aparkaleku batetik. Baina eraikinen artean jaitxi eta ibiltzen bazara, konturatzen zara ez dela eskala garaikidea, eskala inperiala baizik. Beste garai faxista batekoa, hain zuzen. Gaur egun hori ez da egiten».



Sadabak ikuspuntu bitan zuen interes berezia: bertan lan egin zuten pertsonen iritzia eta Lemoizko zentral nuklearraren gatazka ezagutu ez zuten belaunaldiarena, gazteena, alegia. Onartu duenez, jasotako *feed-back*a oso positiboa izan da. Bertan bizi, lan eta aurka agertu diren lagunek asko eskertu dute gai hau berriro ere mahai gainean jartzea. Izan ere, *Escala 1:1* erakusketagaz eztabaida berriro ere ireki du, ez da ilunpean gelditu: «Askorentzat bere bizitzaren zati oso garrantzitsua eta mingarria izan da. Garai batean, jendeak oraindino ere lan bera zuten bizitza osoan. Orduan, badira 25 urte zentralen lan egin zuten pertsonak, zegoen tentsio guztiagaz, eta horrek esan gura zuten danagaz. Etxeak, lurrak, tradizioak,





bizimoduak, familiakoak... galdu zituen jendeaz ez hitz egiteagatik». Era berean, gazteria naturaren suntsipenagaz oso kontzientziatuta agertu dela baieztatu du, eta, horregatik, oso sentiberak dira zentralarekiko, suntsipen sistematikoan oinarritutako 'aurrerapen' baten ideian oinarritzen delako. «Gaur egun badakigu aurrerapenaren ideia horrek huts egin duela. Erakusketa honetan oso presente dago landareen garapena, eta, horregaz, oso lotuta sentitzen dira gazteak». Hala, Ixone Sadaba artistak bazterrean gelditu diren zentralaren inguruko kontakizunei euren toki propioa eman die, betiere hausnarketarako mapa berriak marrazteko abiapuntu egikaritzuz.



Apirila

Barrika

Apirilaren 22tik 26era

Udabarrilekuak

10:00-13:00 | Ander Deuna aretoan

5-12 urteko umeentzako; izen-emateak:
946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Apirilak 26, zapatua

Hitzaldia: Pandemiak

19:00 | Ander Deuna Aretoan

Gertuko elkarteak antolatuta.

Berango

Apirilak 12, zapatua

Kontzertua: Zinema Paradise

19:00 | Berango Antzokian

Zinemak eman dituen abesti ederrenak.

Apirilak 13, domeka

Liburu azoka

11:00 | Pilotalekuan

Idazleak, argitaletxeak eta umeentzako jarduerak egongo dira.

Erandio

Apirilak 6, domeka

Kanpomartxo

11:00 | Martiartun

Euskal dantzak, bertsolariak, herri-bazkaria...

Apirilak 16, eguaztena

Hitzaldia: Indarkeria digitala nerabezaroan

17:00 | Bekoa ikastetxean

eisep8@erandio.eus eta 944 170 007

Apirilak 29, martitzena

Liburu azoka

09:00 | Josu Muruetan eta metroko plazan

Erandioko liburutegiek liburuak kalera aterako dituzte euro 1ean saltzeko; batutakoa sahararren aldeko elkarte bati emango diote dohaintzan.

Getxo

Apirilaren 4tik 30era

Erakusketa: Getxo, begirada magiko bat

Romo Kultur Etxean

Xavier Undaren argazki-erakusketa.

Apirilak 11, barikua

Kontzertua: Olatz Salvador

20:00 | Muxikebarrin

Momentuko abeslari ezagunaren emanaldia.

Apirilak 12, zapatua

Antzerkia: Badakizu plastikozko loreak ez direla inoiz bizi, ezta?

20:00 | Muxikebarrin

Komedia tragikoa.

Apirilak 13, domeka

Antzerkia: Teilatupean

18:00 | Muxikebarri Antzokian

Umeentzako antzerki-obra.

Apirilak 27, domeka

Dantzaren Nazioarteko Eguna

12:00 | Bizkaia Zubian eta Eskoletako plazan

Dantza-akademien nahiz profesionalen erakustaldiak.

Gorliz

Apirilak 11, barikua

Ikuskizuna: Emeen kemen

19:00 | Udaletxeko areto nagusian

Euskaraldiaren programazioko jarduera.

Apirilak 13, domeka

Txiki Box

11:00 | Ibarreta plazan

Piratak Gorliz taldeak umeentzako boxeoa-saioa antolatuko du.

Apirilak 16, 19 eta 26

Bizkaiko kostaldea ezagutzen

Hitzaldiak eta ibilbideak egingo dituzte kostaldea hobeto ezagutzeko.

Leioa

Apirilak 25, barikua

Antzerkia: Adiorik ez

20:30 | Kultur Leioan

Samurtasunari eta gizatasunari buruzko istorio bat da.

Urriak 6, barikua

Antzerkia: Adiorik ez/ni flores, ni cenizas, ni tantan

20:30 | Kultur Leioan

Lemoiz

Apirilak 13, domeka

Yoga familian

11:00 | Armintzako kultur etxean

Aldez aurretik izena eman beharko da kultur etxean bertan.

Apirilaren 22tik 25era

Txikimist aisialdi saioak

10:00-14:00 | Urizarko kultur gelan

Apirilaren 22tik 25era

Arnaste kontzientea

18:00 | Armintzako kultur etxean

Aurretik izena eman beharko da.

Plentzia

Apirilak 12, eguena

Musika-tailerra familientzat

19:30 | Goñi Portalen

Izen-emateak Goñi Portalen

Apirilak 13, domeka

Artisau azoka

10:00 | Ontziola plaza

Bisita gidatuak: Itsas tradizioa

11:00 | Turismo bulegoan

Euskaraz eta gazteleraz (12:00etan) egingo dute; izen-ematea turismo bulegoan egin behar da.

Apirilak 15, martitzena

Indarkeriaren Oi(h)artzunak

18:30 | Goñi Portalen

Kandelaria Kultur Elkarteak dokumentalaren proiektzioa eskainiko du.

Sopela

Apirilak 13, domeka

Sopelako 21. Herri Lasterketa

10:30 | Udaletxeko plazatik

Izen-emateak Munarri Atletismo Taldearen webgunean.

Apirilak 26, zapatua

Korto Express

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Gaia apirilaren 24an iragarriko dute.

Apirilak 27, domeka

Kontzertua: Axúdame a sentir

20:00 | Udaletxeko plazatik

Xabier Diaz & Adufeiras de Salitre.

Urduliz

Apirilak 21 eta 30

Aisialdiko tailerrak

Urdulizko kultur etxean

Sormen jokoak familian.

Apirilak 23, eguaztena

Liburuaren Eguna

17:30-20:00 | Urdulizko kultur etxean

Irakurketa partekatua.

Apirilak 25, barikua

Guztientzako zinema: Collete

18:30 | Urdulizko kultur etxean

Lehen/Orain **Leioako tren geltoki zaharra, 1960-1990 artean**



Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA

Jagoba Pereda
Txopitea

DOINUA

Gogoan daukat
ez du aspaldi

ARGAZKIA

Hodei Torres

Txakur gunepak

*Txakur gunea jartzen dutenez
Gero eta urrunago,
hona etortzeko irrikan
egotea ez da arraro.
Bi lagun batu egin gara gaur
ondo pasatzeko, klaro!
-Harrapatzera jolas gaitzean!
-Benga, ados! Ondo dago!
Begiak itxi, ehun zenbatu ta...
Berriro bakarrik nago!*

*Beraz, txakurrak herri gunetik
urrunteza dute plana:
arraza "arriskutsuek" piztu
zutelako han alarma,
etxe ondoan bi kumetxoek
(eg)in bait dute gorotz bana,
auzoko txakurra gau osoa
zaunka dabil ta... Ai ama!
Errua norena da txakurra
ala bere jabeana?*

*Txarto hezituta izan bait dira
txakurren jabe gehienak,
lau hankakoek sortzen dituzte
buruhauste eta penak.
Txakur gunepak azago jarri,
eroan ditzala trenak...
Konponbidea hori omen da
eta akabo problemak...
Desertu hortara bidal ditzagun
bi hankako txakur denak!*

Beñat Erezuma Arisketa Irakaslea

«Adimen artifizialean alfabetatu behar gara»

ANDER ZARRAGA

Teknologia eta Matematikako irakaslea da Beñat Erezuma Arisketa ingeniaria. Horrez gain, STEAM eta digitalizazioan aholkularitza-lanak ere egin ditu, eta, urteotan, Elhuyar Zientzia Azoka eta STEAM Euskadi sarietako epaimahai-kide ere izan da, besteak beste. Halaber, adimen artifizialak hezkuntzan duen lekuaz ere aritu zen iaz Udako Euskal Unibertsitatean.

Adimen artifizialak gero eta presentzia handiagoa dauka hezkuntzan. Zeintzuk dira planteatzen diren erronkak eta aukerak? Irakaslearen begiradatik ikusita, ChatGPT bezalako txatbotak tresna erabilgarriak izan daitezke, batez ere, lan burokratikoak arintzeko. Hezkuntza Sailean, adibidez, dokumentazioan arakatzeko txatbot propioa daukate. Horrez gain, materialak edo errubrikak sortzeko ere oso baliagarriak dira, ebaluaziorako tresnak sortzeko balio baitute. Hala ere, hor kontu handia izan behar dugu, oso ideia txarra delako ikasleen lanak ebaluatzeko horrelako tresna batera jotzea: batetik, ez daudelako horretarako prestatuta, eta, bestetik, adimen artifizialarekin egindako lanak atzemateko erabiltzen diren programek positibo faltsuak ere ematen dituztelako, eta horrek ikasleen eskubideak urratu ditzake.

«Irakasleok adimen artifizialaren inguruko oinarritzko alfabetizazio bat izan beharko genuke, gero hori ikasleei transmititzeko; horren atzean zer dagoen ikasi eta jakin ikasleekin ere sor ditzakegula horrelako eredutxoak»

«STEAM hezkuntzaren bitartez gizartearentzako onuragarriak diren proiektuak bultzatzea bilatzen da beti»

Beraz, adimen artifizialak ez luke ebaluatze-ko balioko? Horretarako, ebaluatze-ko forma aldatu beharko litzateke. Ikasle bati lan bat eskatzen diogunean, hori gurasoek ere egin ahalko lukete; nire ustez, ahozkotasanak eta offline momentuak ebaluatzeak garrantzia gehiago hartu beharko lukete, baina horrek ez du kenduko horrelako tresnak laguntzaile bezala erabiltzea.

Beraz, hezkuntzarako tresna bat gehiago izango da? Bai, baina zentzu oso kritikoa erabili beharreko tresna dira. Arazo handienetako bat da txatbotek ez dakitela esaten zerbait ez dakitela, eta, horregatik, gauzak asmatu egiten dituzte; gainera, mendebaldeko gizartearen eta, bereziki, AEBko ikuspegia dute erabat; besteak beste, Euskal Herriari buruz oso gutxi dakite.

Hori ondo erabiltzen ikasteko edukiak ere sortu dituzu, ezta? Bai, adimen artifizialei dagokienez, uste dut alfabetatzea ezinbestekoa dela. Horretarako, batetik, Berritzegune Nagusian hiru bideo grabatu genituen horrek izan ditzakeen ondorioez, eta, bestetik, nire webgunean ere ikastarotxo bat badaukat horren inguruan. Gainera, irakasleei Unicefek sortutako dokumentuak ere gomendatzen dizkiet, hezkuntzara begira oso erabilgarriak direla uste baitut.



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Erezumak berezuma.com webgunean batu ditu bere artikulua eta lanak. HODEI TORRES

Gaiz aldatuta, nola azalduko zenuke zer den STEAM? Zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematika bateratzen dituen hezkuntza-esparrua da. 2018an, Hezkuntza Sailak horretara bideratutako estrategia abiatu zuen, eta, gaur egun, hainbat ikastetxetan egiten dira STEAM proiektuak. Hori gertuko aholkularitzaren bitartez mantendu eta hauspotu beharko litzatekeela uste dut. Dena den, ezin dugu iparra galdu, uste baitut horren atzean ere etika eta pentsamendu kritikoa egon behar direla.

Nola gorpuzten da hezkuntza-esparru hau? Aipatutako diziplinak bateratzen dituzten proiektuak dira: jakintzagaiak solte eman beharrean, proiektu amankomun baten parte dira eta ikasleek metodo zientifikoa zer den

Zeintzuk dira irakasleen erronkak?

«Besteak beste, urtero kanpotik etorritako hainbat ikasle jasotzen ditugu, bertako hizkuntzak menderatzen ez dituztenak, eta hor izugarriko erronka daukagu horiek gure sistemari txertatzeko. Ulertu behar dugu duela 25 urteko Euskal Herria eta gaurko ez direla berdina, beraz, Hezkuntza Sailetik guretzako ardatzak diren arloetan trebakuntza asko jaso beharko genuke»

uler dezaten jartzen da azpimarra; hau da, ikerketa zientifikoa zer den eta hortik nola ateratzen diren ondorioak, baita prozesu teknologikoak zer diren eta horietarako beharrezkoak dituen beste hainbat estrategia ere.

Zergatik uste duzu dela garrantzitsua konpetentzia hauek ikasleen prestakuntzan txertatzea? Zientziarik gabe ez garelako ezer eta horretan oinarritzen delako gure jakintza guztia. Teknologia ere ditugun arazoak konpontzeko tresna da. Adibidez, pandemiaren ikusi zen ikastetxeetan gelak aireztatuta egotea garrantzitsua zela; hori hipotesi bat zegoen, baina frogatu behar zen ea nola aireztatu zitezkeen. Horretarako atek eta leihoak ireki beharko lirakeke. Geletan zegoen CO2 kopurua zuzena den edo ez ikusteko, Batxilergoko ikasleekin CO2 neurgailuak sortu genituen. Horretarako, zientzia eta teknologia ezinbestekoak dira.

Nola ikusten duzu zuk hezkuntzaren etorkizuna? Ikasleei begira, hainbeste mezu negatibo ematen zaien garai hauetan, nik mezu positibo bat bidali nahiko nieke, hori ere garrantzitsua delako. Gure gizarteak izugarriko erronkak ditu eta horien aurrean ezin dugu beste alde batera begiratu. Adibidez, etxebizitzaren lehentasuna izan beharko litzateke: nola emango diegu etxebizitza duina gaur egungo baldintzekin? Adimen artifizialaren erronkari dagokionez, nik uste dut ikasleek etorkizunean erabiliko duten tresna bat gehiago izango dela, baina horretan ere alfabetatu beharko zaie eta uste dut gakoa pentsamendu kritikoa eta aholkotasunean egongo dela, baita irakurmenean ere. Pentsatzen dut hori dela bidea, baina horretarako gelan eztabaidak ere sustatu behar dira, debekuak jarri beharrean gauzen zergatia azaldu eta beraien iritzia ere galdetu behar zaielako.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Erdi gunean ZU

sanikolas.eus

Estibaliz Leon 42 Urduliz Bizkaiako zuzendaria

«Erabiltzen dugun metodologia ikasten ikastera dago bideratuta»

Autoikaskuntzan oinarrituta eta enpresen beharretara bideratutako programazio informatikorako ikasketa-zentroa da 42 Urduliz Bizkaia.

ANDER ZARRAGA

Parisen 2013an sortu zen 42 proiektua, eta 2021ean heldu zen Urdulizera, Telefonica Fundazioko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. 42 Urduliz Bizkaia mota honetako Estatuko bigarren zentroa izan zen, eta gaur egun 300 ikasle aktibo inguru ditu bere metodologia berritzailean programazioa ikasten ari direnak. Zentroko zuzendari Estibaliz Leonek laburbildu duenez, «gure metodologia autoikaskuntzan eta elkarlanean oinarritzen da, edonork parte har dezake horretan, aurretiko ezagutzarik izan gabe; baldintza bakarrak 18 urte eta ikasteko gogoak izatea dira».

Hezkuntza tradizionalaren aldean, Leonek azaldu du 42 Urduliz Bizkaiaren ez daukela irakaslerik ezta aurrezarrirako curricula betetzeko beharrik ere: «Maila guztietako ikasleek elkarri irakasten diote, proiektuak batera garatzen dituzte eta gamifikatutako puntuazio-sistema baten bidez ebaluatzen dira beraien artean». Horrela, autoikaskuntza sustatu gura dutela azpimarratu du zuzendariak; izan ere, bere hitzetan, teknologiaren eta programazioaren munduak hori eskatzen du gaur egun: «Mundu teknologikoa



«Beti esaten dugu programazio campus bat baino askoz gehiago garela, metodologia prestatuta dagoelako edozein lanbidetan eskatu ditzaketen eskumen digitalak garatzeko, eta, horretarako, talde-lana, lidergoa eta arazoak ebazteko gaitasuna dira»

etengabe ari da aldatzen, eta guk hezkuntza-sistema klasikotik aldentuta gura dugu, lan-munduko beharrei erantzuteko».

Zentroa doakoa izan arren, bertan ikasi gura dutenek «Piscina» izeneko sarbide-prozesua egin behar dute. 26 eguneko erronka zorrotz horretan ikasleak zentroko metodologian murgiltzen dira eta proiektu bat garatu behar dute; Leonen arabera, % 50 inguruk bakarrik lortzen dute hori gainditzea.

Behin barruan, ikasleek oinarritzko jakintzak jasotzen dituzte, hala nola C eta C++ programazio-hizkuntzak. Behin horiek barneratuta, zortzi espezialitateen artean aukeratu dezakete konplexutasunean gora doazen 21 mailatan banatuta: zibersegurtasuna, adimen artifiziala, marketin digitala, mugikorren aplikazioak... «Especialitate aniztasun honek aukera ugari eskaintzen dizkie ikasleei, eta bat baino gehiago bateratu dezakete, ezinbesteko ezaugarria gaur egun», nabarmendu du zuzendariak.

42 Urduliz Bizkaiatik 600 ikasle baino gehiago pasatu dira lau urteotan, eta aipatutako metodologiari esker, ikasleen lan-munduratzea ia % 100ekoa dela ziurtatu du Leonek: «Hemendik ateratzen diren ikasleek lan-aukera asko dituzte, gero eta profil teknologikoko langile gehiago bilatzen baitira». hainbat enpresagaz batera, IBM, Google edo Amazon bezalako multinazionalak ere hartu-emanak dituzte zentroagaz.



HH1eko matrikulazioa

URTE OSOAN
ZABALIK



ander deuna
IKASTOLA

*Biharko mundua
gaur eta hemen*



ikastolenkartea

www.anderdeuna.eus



INTERESA IZANEZ GERO,
BETE HURRENGO GALDETEGIA
ETA HARREMANETAN JARRIKO
GARA ZUEKIN.



POLITEKNIKA
TXORIERRI

HEGAN

EGITEKO
AUKERAK

Lanbide Heziketa
eta Batxilergoa
Formación Profesional
y Bachillerato



EMAN IZENA:



POLITEKNIKATXORIERRI.EUS



HETEL

Azterketarako presta zaitez!

Ekainean izango diren ingeles azterketa ofizialetarako prestakuntza-klaseetarako izen-emateak irekiko ditu Real English-ek; presta zaitez!

Real English-ek, CLTn (Communicative Language Teaching) eta komunikazio-metodologian espezializatutako ingeles-akademiak, ekainetik aurrera eta hilabete osoan zehar azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroetan izena emateko aukera emango du. Ikastaro hauek azterketa horietara aurkeztu gura duten hautagaiei zuzenduta daude, baita ingeles-maila indartu edo epe laburrean maila altuago batera jauzi egin gura dutenei ere. Gainera, parte hartzaileek azterketa ofizialak prestatzeko prozesuagaz ohituzeko aukera izango dute.

Real English-en, eskarmentu handiko talde bat dugu, azterketa-prozesuaren ñabardura



Azterketak gainditzeaz gainera, maila indartzeko aukera eskaintzen dute ikastarook.

Ez galdu aukera eta prestakuntza ziurtatu ekaineko azterketetarako!

garrantzitsuenetan espezializatzen dena, eta horrek aukera ematen digu emaitzak lortzera bideratutako prestakuntza pertsonalizatua eskaintzeko. Gure gaitzuen ratioak oso altuak dira, eta horrek gure metodologiaren eragin-kortasuna babesten du.

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

URIBE KOSTAKO AEK

**IKASTARO TRINKOA
MATRIKULA ZABALIK
C1 maila**

Apirilaren 1etik ekainaren 27ra
Astelehenetik ostiralera 09:00-13:00

IZEN EMATEA:

Getxo • **944 30 47 34**
lauaxeta@aek.eus

UDAKO BARNETEGIAK
<https://www.aek.eus/eu/uda>

DIRULAGUNTZAK

HABE eta Udal guztietan

Lanbide Heziketa: Zure etorkizuna hemen hasten da

Lanbide Heziketa aukera ezin hobea bihurtu da lan-merkaturako prestakuntza praktikoa eta eraginkorra bilatzen dutenentzat. Aurrematrikula maiatzaren 5etik 23ra izango da.

Fadura LHII Uribe Kostako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da, etorkizuneko erronka profesionaleri arrakastaz aurre egiteko beharrezko tresnak eskaintzen dituenena. Fadura LHII-n profesionalen beharretara egokitutako hezkuntza eskaintzen dugu, prestakuntza moderno eta praktikoarekin. Horri esker, gure ikasleek lanbide bakoitzean beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzen dituzte, merkatuaren beharretara egokitutako ezagutzekin. Hala, enpresek bilatzen dutena gure ikasle izandakoekin aurkitzen dute eta, urtez urte, beraien gogobetetze-maila hazi egin da.

Gure zentroak instalazio eta ekipamendu aurreratuak ditu eta gure ikasleei baliabiderik onenak eskaintzen dizkie heziketa-zikloetan. Halaber, errendimendu handiko ikasgelak eta tailerrak ikaskuntza optimizatzen diseinatu daude, eta ingurune erosoak, modernoa eta egokia eskaintzen dute, ikasleei beren gaitasunak eraginkortasunez garatzeko aukera izan dezaten.

METODOLOGIA BERRITZAILEAK. Fadura LHII-n metodologia berritzaileak erabiltzen ditugu ikasteko esperientzia dinamikoa eta parte-hartzaileagoa eskaintzeko. Teknologia aurreratuak, tresna digitalak eta ikuspegi praktikoak ditugu hezkuntza aktiboa sustatzeko eta ikasleek etorkizuneko lanbidean behar dituzten trebetasunak garatzen laguntzeko. Zentzu horretan, adimen artifizialak funtsezko zeregina du: ikasgeletan AA erabiltzen dugu gure ikasleak punta-puntako teknologiekin egunean egon daitezen, haien prestakuntza hobetuz eta gero eta teknologikoagoa den lan-merkatuan nabarmentzeko beharrezkoak diren gaitasunak emanez.

Gure prestakuntzaren ezaugarri nabarmenetako bat lan-praktikak dira. Gure ikasleek 1go eta 2. mailan praktikak egiten dituzte eta, horri esker, ikasitakoa egoera errealean aplikatu dezakete. Gainera, «Ikas-ekinezko duala» aukera ere eskaintzen dugu; horren bitartez, ikasleek prestakuntza akademikoa eta enpresa bateko lana konbinatu ditzakete. Hartara,



Fadura LHII-n hainbat motatako prestakuntza-eskaintza daukate.

Fadura LHII-n, zure amets profesionalak egia bihur daitezke. Kalitatezko prestakuntza eta aukerak eskaintzen ditugu. Arrakastarako lehen urratsa hemen hasten da, biharko profesional onenak prestatzen dituen Lanbide Heziketako zentroan.

ikasleek, ikasten jarraitzen duten bitartean, lan-esperientzia lortzeko aukera daukate, lan-merkaturatzean lagunduz.

Bestalde, Erasmus+ programaren bidez, praktikak Europako beste herrialde batzuetako enpresetan egiteko aukera ere eskaintzen dugu, ikasleen ikasketa-eremua zabalduz, nazioarteko esperientzia emanez eta profil profesionala hobetuz.

Fadura LHII-n gure ikasleen prestakuntza integralarekin konprometituta gaude. Prestakuntza teknikoaz gain, berdintasuna, inklusioa eta jasangarritasuna bezalako balio garrantzitsuak ere sustatzen ditugu. Hezkuntza ekosoziala ere gure ardatzetako bat da, ingurunearekin eta gizartearekin konprometitutako profesionalak prestatu nahi ditugulako.

Aurrematrikula egiteko epea maiatzaren 5etik 23ra izango da. Ez galdu aukera! Eman izena Fadura LHII-n! Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu gure web orria: www.fadura.eus edo deitu 944 069 000 telefonora.

Galder Guenaga Idazlea

«Poesian sentitzen naiz gustura, jolaserako eremu emankorra delako»

Barakaldoko Masitasun Gutunen Lehiaketako euskarazko saria jaso zuen otsailean Galder Guenagak. Ez da halako aitortza bat jasotzen duen lehenengo aldia, hainbatetara aurkeztu baita lehenago.

TESTUA ETA ARGAZKIA: IKER RINCON MORENO ►

Galder Guenaga eibartarra da sortzez, baina algortarra adopzioz, bertan bizi baita duela 20 urte. Ekonomian doktorea eta irakaslea da EHUn, eta bere izena literaturgintzako sariketa askotan ere agertu da. Azkena, Barakaldoko Maitasun Gutunen Lehiaketan, euskarazko txapela jantzi baitzuen joan den otsailean. Aurretik ere hainbat aitortza jaso ditu, hala nola Bergaran, Leioan eta EHuko hainbat lehiaketetan. Marka hori izan arren, aitortzen du ez duela bere burua idazletzat hartzen, «sasi-idazle, izatekotan, ikuspegi literariotik behintzat».

Hartara, zergatik idazten duen galdetuta, erantzuna argia da: «Idaztea gustuko dudalako». Literaturaren bidez bere hizkuntzagaz, euskaragaz, jolasteko plazera du motibazio nagusia, eta formatu laburretan lortzen du hori batez ere, hala nola poema, haiku, mikroipuin, gutun edota kontakizun laburretan. Eta horietatik guztietatik, poesia du gustukoen: «Horretan sentitzen naiz libre: ez dago araurik, denak balio du». Izan ere, dituen baliabideen artean, hitz-jokoak eta «hitzperimentuak» egitea maite du: «Hizkuntzarekin jolastea gustatzen zait, baina helburu batekin: dibertitzea, bai, baina batez ere zerbait esateko eta irakurlea norabait eramateko».

Duela 30 urte ekin zion letra eta errimakaz jolasteari, «urteotan guztiotan modu inkonstantean idatzi dudan arren». Harrezkero, ideia, testu eta hitz-joko mordoak pilatzen joan da ordenagailuan, eta gura izan duenean edo lehiaketaren bat erronka gisa hartu duenean horiek josi izan ditu. «Lehiaketak idaztera behartzen nau. Helburu bat jartzen dit: epemuga, baldintzak... eta horrek laguntzen dit buruan ditudan ideiei forma ematen».

Guenagak lantzen dituen gaiak ez dira soilik pertsonalak edo poetikoak; askotan, gizar-te, politika eta hizkuntzari lotutakoak dira.



Besteak beste, hizkuntzagaz jolasteko grinetik sortzen zaio idazteko gogoia Guenagari.

Poesia

«Aurrik gabeko ekosistema horretan sentitzen naiz erosoen. Eta askatasun horretan, hitz jokoen eta esperimientuen eremuan gustatzen zait aritzea. Polita da»

Euskararen egoera bera gai literario bihurtzen du: «Euskararen inguruko poema asko ditut, amorrutik eta gurariz betetakoak». Era berean, askotariko estrategiak ere baliatzen ditu gai gogorak modu leunean kontatzeko: «Maitasun gutun batean, adibidez, mezu gogor bat oso modu gozoan eman daiteke. Eta horrek are indartsuagoa egiten du istorioa. Irakurlea ezin negonarekin uzten duen zerbait da, nahiz eta tonua leuna izan».

Literaturaren plazera lagunarteko egunero-kotasunean ere txertatzen du lantzean behin; besteak beste, zorion-agurrak errimadun poemetan idazten ditu WhatsApp taldeetan: «Ez da zorion-mezu hutsa, pertsona horri propio idatzitako zerbait da, eta konexioa sortzen da».

Eta etorkizunean, egindako testu guztiakaz argitalpenik egiteko asmorik ote du? Ez du baztertzen, baina ez du horretarako asmorik: «Poesia-bilduma batzuk osatuta dauzkat, baina ez dut argitaratu. Ez dakit egingo dudan ere».

Batzuetan, inspirazioa metroan heltzen zaio, beste batzuetan garagardo bat eskuan duela, eta hala, idazten jarraitzen du, eguneroaren plazer apaletik, hizkuntzaren jolaserako grinatik eta hitzen bidezko esperimientuetatik. «Hizkuntza gustuko dut, hitz egiteko eta idazteko. Orduan, aitzakiatxoak bilatzen ditut idazteko. Baina hor agortzen da nire prententsioa, edo baita nire ahalmena ere». ◀

ZU EZ KEZKATU, AMA

Barakaldoko lehiaketan irabazi zuen Galder Guenagaren maitasun-gutuna irakurtzeko, irakur ezazu QR kode hau:



Zuriñe Cuesta 25. Umore Azoka

«Leioa kulturaren munduan kokatzea lortzen dugu»

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ►

Umore Azoka ezinbesteko hitzordua bilakatu da leioaztarrentzat, baina baita kaleko arteetako profesionalentzat ere. Aurten, jaialdiaren 25. urtemuga izango da, data borobila ezinbestean. Hori dela eta, Zuriñe Cuesta Kultur Leioaren programatzailearengana jo dugu, aurten ea zer prestatzen ari diren galdetzeko.

Umorea behar-beharrezkoa daukagu egunotan, ez duzu uste? Umorea eta arte eszenikoak orokorrean; kaleko arte eszenikoen mundua aldatzeko eta kohesionatzeko tresna oso erabilgarria direla uste dut. Gainera, kaleko ikuskizunek daukaten abantaila da edozein herritarrek topa ditzakeela kaletik; ez dago zertan sarrera bat erosi behar, artea gugana dator, plazetara eta kaleetara. Horregatik, hurbilagoak dira jendearekin.

Zein izan da urteotako bilakaera? Lortu duen ospea da nire ustez esanguratsua. Urtez urte Azokan lanean aritu diren lankide guztiek kalitatea jorratu dute, bai publikoarekiko begirunearen aldetik, baita kalitate gehiagoko eta handiagoak diren ikuskizunak ekarriz ere. Aipatu beharreko beste bilakaera garrantzitsu bat izango litzateke kaleko arte eszenikoen ere izan dutena: lehen, antzerki purua zegoen; aldiz, gaur egun, antzerkia, dantza eta zirkua fusionatuta daude; urteotan hainbat lengoia artistiko sortu dira, eta hori islatzen dugu Umore Azokan, guztiek izango dutelako lekua gurean.

Aniztasuna Umore Azokaren ardatza da bezaraz? Bai, aniztasuna, baina baita jasangarritasun ekologikoa ere. Uste dut ikuspuntu hori ere derrigorrezkoa dela gizartearen erantzukizun bat ere badelako. Alde horretatik, jaialdiaren karbono azterna gutxitu nahi izan dugu, eta, horretarako, Ihoberekin proiektu bat garatu dugu ekitaldiak Erronka Garbia zigilua jaso dezan. Aniztasunari dagokionez, beste jaialdi batzuetan ere egon gara gai hori nola lantzen duten ikusteko eta, aurten, aniztasun funtzionala duten artistak izango ditugu, ikusarazi nahi dugulako publikoan lekuan izateaz gain, kalitatezko ikuskizunak ere egin ditzaketela.



Aurten, askotariko 600 proposamen baino gehiagotik 49 aukeratu dituzte.

Umore Auzoka

«Umore Azoka sektoreko profesionalen topagune bat bezala ulertzen dugu, beraz, programatzaile eta profesionalentzat eroso izan behar du. Hala ere, Azokaren eragina Leioako auzoetara eraman behar genuela ikusi genuen, eta, horri erantzunez, Umore Auzoka planetatu dugu: Azoka baino bi aste lehenago, larunbat eta igandeetan kaleko ikuskizunak egongo dira Pinuetan, Txorierrin, San Bartolomen eta Lamiakon»

Nolako eragina du Umore Azokak Leioan?

Heria jendez gainezka egoten da lau egunetan, eta horrek herriari bestelako bizitza ematen dio. Gainera, kaleko arte eszenikoen inguruan sortzen den giroa ere oso ona izaten da, oso hurbilekoak direlako. Horrez gain, herrian hainbeste jende hartzeko eta giro hori sortzeko leioaztarrek duten eskuzabaltasuna ere eskertzekoa da; finean, Leioa kulturaren munduan kokatzea lortzen dugu, sektorean oso hitzordu garrantzitsua baita.

Programatzaile eta konpainientzako publikoarentzat hain ezaguna ez den azokaren alde hori ere berebizikoa da, ezta?

Umore Azokaren berezitasuna da hanka bi horiek jorratzen dituela: publikoa eta profesionala. Ezezagunagoa da profesionalentzako zuzendutako ekintzak direlako, baina oso-oso garrantzitsuak eta interesgarriak dira hainbat tokitatik datozen profesionalekin biltzen garelako. Horren bitartez hori guztia mahai gainean ateratzen dugu ikasteko, baina baita irakasteko ere, kulturaren munduan erakusteko asko baitauekagu. Horrek profesionali Azokari ematen dion aberastasuna izugarria da. Programatzaile horiek hemengoak izaten dira, baina atzeritik asko eta asko ere etortzen dira; zentzu horretan, euskal konpainiak atzerrian ezagutzera emateko helburua ere badauekagu, baita kanpoan egiten diren gauzak hona ekartzeko ere. ◀

Telefonoa hizpide

JOXE BELMONTE Idazlea



Telefonoak hitz egiteko soilik balio zuen garaia urrun geratu zaigu. Gaur, abizenaz da ezagunagoa: mugikorra, hodei digitaletatik zeruraino igo gintzakeena, baina baita, neurriak ipini ezean, infernura erorarazi ere.

Mugikorrek arrisku askoren aurrean jartzen gaitu: bideo-joko, zorizko joko, pornografia, erosketa konpultsibo, sare sozial manipulatuzaile... Imajinatu pertsona helduentzat adiktiboa dena zer izan daitekeen burmuina garatu gabe duen ume-nerabearentzat. Tik-tok, tik-tok... Nerabezaroan sartu baino lehen, harrapakari digitalaren harrapakin. Kostu handiko dopamina merkea, frena jartzen ez dakien adingabearentzat.

Menpekotasunetik mundu irrealera kondenatua: argazkia izango da inportante, ez bizi izandakoa; filtroz desitxuratutako *selfie*a, ez irudi naturala; porno bortitza, ez sexualitatea; *influencer* ukatzaile ezjakin batek dioena, ez zientzia... Gorputza gurtu, garuna lehortu.

Zelan baztertu mugikorraren alde toxiko hori, bere onurak ateratzeko? Zaila, baina ez ezinezkoa. Gizarte mailan kontzientziatzea, lehenik. Zelan jokatu jakiteko ezagutzak hartzea, bigarrenik. Familia, eskola eta gainerako agente sozialen arteko elkarlanean aldaketari ekitea, azkenik.

9.448 arrazista eta hainbat polizia

EKAITZ HERRERO SAN MARTIN



Migratzea giza eskubide bat da. Gerren, eskubide urraketen edota goseteen ondorioz gertatzen dira migrazioak. Ezinbestek bultzatuta. Hala ere, herritar askoren irudiko, gazte etorkin horien helburu bakarra delitu egitea dela dirudi. Euren kultura, familia eta herria atzean utzi, desertuak eta itsasoak zeharkatu, eta hamaika kilometro egin hilabete luzeetan zehar, delitua egitea xede bakarra izanik? Benetan? Dirudienez, zenbaiten ustez, etorkinek ezin dute euren herrialdeetan deliturik egin, eta, beraz, kontinente oso bat zeharkatu behar dute hemen egiteko.

Kultura gabeziak askotan lotura zuzena du arrazakeriarekin eta, sarri, jarrera faxistekin. Atzerritartasun legeek, estatuaren politikak eta diskurtso hegemonikoek arrazakeria normalizatu dute. Eta jendartearen onespenearekin, maiz. Gurean, Getxon, PPri eta VOX alderdi falangistari botoa eman dieten 9.448 herritar daude. Horrek, zuzeneko gogoeta bat eskatzen du: nola da posible gizarteratze faltaz kexatzen diren horiek beraiek ez integratzea aniztasunean? Orain, polizia aritu dira etorkinekin solasaldi saioetan. Baina eginkizun hori ez al da, lehenik eta behin, herritarrona? Kolektibitate osoarena, ez soilik instituzioen esku utzi beharrekoa.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure akatsez barre egiten ere ikasi behar duzu, ez zaitez horren gogorra izan zure buruagaz! Umorez bizitza politagoa da.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Behin eta berriro saiesten duzu erabakiak hartzea. Tik-tak, bizitza bat da, eta bestela beti egongo zara zalantzakaz.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Liburuaren hilabete honetan, hartu arrasti oso bat soilik irakurtzeko, merezi duzu eta. Denok behar dugu denbora deskonektatzeko.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Inguruko pertsona bat gezurretan harrapatuko duzu eta egundoko mina emango dizu. Barkatu ala ez, zure esku dago.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Azken boladan apur bat hipokondriako zabilta, lagun. Zure osasunaz kezkatzea ona da, baina fidatu zure gorputzaz, ondo zaude!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Udaberrian maitasun berriak topatuko dituzu, baina, kontuz, pertsona batzuek alergia eragin diezazukete. Doministiku!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Eguraldi goxo berri honegaz, aprobetxatu lagunakaz plan dibertigarriren bat egiteko. Mendia, basoa, hondartza... dir-dir eguzkiagaz!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ez duzu astirik egin gura dituzun gauza guztiak egiteko. Beharbada ekintza sinpleneetara bueltatu behar zara bizitzaz gozatzeko.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Komunikazio faltak arazo larriak ekartzen dizkizu zure egunerokoan. Kendu kareta eta hasi barrutik behar duzuna azaltzen.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Gauza berriak ikusteko ez zara oporretan joan behar, ametsen bidez ere bidaiatu dezakezu. Goxo lo egin!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lorez lore zabilen hori, udaberria daborduko hasi berri eta hainbeste ahaleginen ostean zu oraindino hain maitagarri!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure norabidea argi duzu, orain asmoak egikaritu soilik egin behar dituzu. Galtzen bazara, egon lasai, berriro bidea topatuko duzu!

Dirulaguntzak

Euskara ikasteko eta erabilera sustatzeko



1 Euskara ikasteko

4 Aisialdiko begirale agiria lortzeko

Kontsultatu baldintzak
www.getxo.eus/euskara

2 Euskara ikasteko (6-15 urtekoentzat)

5 Errotulazioa euskaraz ipintzeko



3 Gidabaimena ateratzeko

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10

euskara.zerbitzua@getxo.eus

www.getxo.eus/euskara



Arrate Mijangos eta Ibon Astobiza Aloka Surf

«Gure ustez, edonork gozatu dezake surfaz»

Aniztasun funtzionala duten lagunei klaseak ematen dizkiete Sopelako Aloka Surfen, Mijangos eta Astobiza kideen esanetan, «denok dugulako surfaz gozatzeko eskubide berdina».

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Aloka Surfen sorreratik surf egokituko klaseak ematen dituzue. IBON ASTOBIZA: Bai. Gure ustez, edozein pertsonak, edozein dela ere bere ezaugarri fisikoa edo psikologikoa, kirol honetaz gozatu dezake. Hasieran, aniztasun funtzionala zuen jende ezagunagaz ibiltzen hasi ginen. Gero, pandemia baino lehen, APNABI edo kirol egokituaren Bizkai-ko Federazioaren eskutik lanean hasi ginen. Hortik bidaltzen zizkiguten desgaitasun sensorialak eta fisikoak zituzten lagunak. Modu autodidaktikoan eta praktikagaz ikasi dugu familiengandik eta pertsonengandik. Etorzen ziren pertsonen profila ezagutzen saiatu ginen, eta haien beharretara egokitzen.

Zenbat erabiltzaile dituzue surf egokituan? ARRATE MIJANGOS: Ez dago erabiltzaile kopuru zehatzik. Astero, 10-12 lagun izan ditugu APNABItik, esaterako. Ikusmen edo mugikortasun murriztua duten lagunak, bizkarreko lesioak dituztenak... Pertsonaren arabera, modu batera edo bestera egokitzen joaten gara.

I. A.: Hasieran, kasu larrietan, segurtasun-baliabide guztiak jartzen ditugu eta lauzpabost monitore gaude pertsona batez. Apurka-apurka pertsona ezagutzen joaten zarenean, monitoreren bat alde batera uzten duzu. Azkenean, saioen bidez, lotura bat sortzen da. Familiek asko laguntzen dute ere.

Duela gutxi sari bat irabazi duzue, ezta? I. A.: Iberdrola Supera saria irabazi dugu. Emakumeen kirolaren aldeko saria da, gizarteratzearen kategorian. Hala, sari ekonomikoaren laguntzagaz aniztasun funtzional fisiko eta psikologiko ezberdinak dituzten lagunentzako materiala erosiko dugu, modu horretan, surfa modu egokituan erosoago egin ahal



Iberdrola Supera saria irabazi du Aloka Surfek. HODEI TORRES

Hasierako beldurrak

«Hasieran beti beldur pixka batez datoz. Baina gero uretara sartu eta ahal dutela ikusten dutenean, poztasun aurpegia ikusten duzu. Surfean, itsasoaren kontra jotzen duzu, ez dago besterik. Oso gogobetegarria da edonorentzat; beraz, nire ustez, osasun mentalari dagokionez, edonori asko gustatuko zaio», azaldu du Arrate Mijangosek.

izateko. Gainera, dirua sobratuz gero, aldage-la duin batzuk ere egin gura ditugu.

Zer ekarpen egiten dizue aniztasun funtzionala duten lagunei klaseak ematea? A. M.: Niri poza ematen dit. Izan ere, aniztasun funtzionala duten lagunek, askotan, beste batzuek baino askoz ere jarrera hobea dute. Azkenean, komunikazio mota bat ziurtat jotzen dugu, eta ez, pertsonen arteko komunikazio mota asko daude. Errealitateak ikusten ikasten duzu, eta oraindik hobetzeko dauden gauzez kontzienteago bihurtzen zara.

I. A.: Maila pertsonalean oso polita da, familiek transmititzen dizutelako eta itzultzen direla ikusten duzulako. Egia da negozio mailan nahiko bidera ezina dela. Pertsona guztiei irekita gaude, baina pertsona batek saio bat egiteko lau monitore behar dituztenean, galdetzen diozu zeure buruari zenbat kostatzen duen saio horrek. Guk beti utzi dugu prezio estandarrean, batzuetan are gutxiago, familien egoera ekonomikoa ezagutzen dugulako. Horregatik, beti aldarrikatu dugu erakunde edo fundazioei laguntza eskatzea. Lauzpabost begirale behar dituen familiarari 150 euro kobratzen badizkiogu, kirol inklusiboa baino, eskusiboa bihurtzen da. ◀

Bizkaia Boggarts Quadbol

«Inklusioa sustatzen duen kirola da hau»

Azken urteotan sortu diren kirol berrietako bat da quadbol eta, errugbia bezala, kontaktuzko kirola izan arren, talde mistoetan inklusibitatea eta gainontzeko jokalariei errespetua dira ardatz.

ANDER ZARRAGA ►

Errugbia, zelai errea eta eskubaloia magia apur bategaz batuz gero, quadball da emaitza. Davo Lopez leioaztarra Bizkaia Boggarts taldeko kidea eta Euskal Selektzioaren partaide izan da, eta honela azaltzen du kirola: «Helburua pilota maila desberdinetan dauden hiru uztaietatik sartzea da; kontaktu fisikoa egon daiteke, beraz, errugbiaren antzekotasun batzuk ditu; gainera, dodgeball pilotekin aurkariak kanporatu daitezke eta, beraz, zelai-errearen ezaugarri hori ere badauka». Nahia Libano algotarrak ere aspalditik jokatzen du quadbol-en, eta dioenez, partidak 20 minutura arte normalak izaten dira, baina une horretan, flag-a azaltzen da; atzealdean pilota bat zintzilik daraman jokalaria inpartzial bat da hori, eta taldeko kide bana hori harrapatzen saiatu behar da. «Gol bakoitzak 10 puntu balio ditu, baina flag-a harrapatzea lortzen duen taldeak 30 puntu eramango ditu, eta partiduari amaiera ematen zaio hori gertatzen denean, beraz, oso erabakigarria izaten da», azaldu du Libanok.

Kirolaren arauak ez dira bereziki zailak, izan ere, Yeray Espinosa taldearen sortzaileetako batek azpimarratu duenez, kirolaren ezaugarri nagusiak aniztasuna eta inklusibitatea dira: «Beste kirol batzuetan lekurik ez daukatela sentitzen duten pertsonak etortzen dira gurera, hemen giro segurua sortzea biltzen dugulako eta errespetuan oinarritzen den lehiaketa delako». Hain zuzen ere, kirol horren inklusibitatea bermatzeko, arauetako batek ezartzen du sei jokalariko talde bakoitzean ezin direla genero bereko hiru jokalaria baino gehiago egon.

Eder Saiagok hilabete gutxi batzuk daromatza taldean, eta aitortu du hasieran kirol erraza izango zela pentsatu zuela, baina



Taldeak Zorrotzan entrenatzen du martitzen arrastietan eta zapatu goizetan.

Jatorria

«2005ean, AEBko unibertsitate bateko futbol-taldeko jokalariek beste kirol batzuetako elementuak batu eta kirol hau sortu zuten. Hasieran, nahiko gauza frikiaz, adibidez, kapak jantzita zeramatatela jokatzen zuten. Baina denboragaz kirol bezala ezartzen joan da, gaur-gaurkoz ez dugu kaparik jartzen jokatzen, eta jendeak ez du kirola 'Harry Potter' pelikuletako jatorriagaz lotzen. Nola jokatzen dugun ikusten dutenean, hobeto pentsatu dute, baina gehienek probatu dute eta gustatu zaie»


behin probatuta, onartu behar izan zuen fisikoki ondo egotea eskatzen duela, «partidu bakoitza 30 minutukoa izan daiteke eta jardunaldi bakoitzean bost partidu jokatu ditzakegu, beraz, atera kontuak».

ADISKIDETASUNA. Bizkaia Boggarts-ek Zorroza Futbol Taldeak lagatako zelaian entrenatzen du martitzen arrasti eta zapatu goizetan. Diotenez, euren egoera asko hobetuko litzateke erakundeen onarpena eta laguntza izango balute; izan ere, orain dela gutxira arte, Barakaldoko parke batean entrenatzen zuten, inolako azpiegiturarik gabe. Dena den, martxoaren amaieran Europako Txapelketan izan ziren eta taldekideetako batzuk uztailean Belgikan egingo den Munduko Txapelketan ere arituko dira lehiatzen.

Lehiaketak lehiaketa, elkarrizketatutako lau jokalariek azpimarratu dute zelai barruan zein kanpoan duten giro ona dela gehien erakartzen diena. «Nik lagun berriak egin gura nituelako hasi nintzen, oso giro polita zutela ikusi nuelako; probatu nuen eta kirola ere asko gustatu zitzaidan», gogoratu du Libanok. «Jendeak *Harry Potter* pelikuletako kirolagaz identifikatzen du hau, baina behin probatzen dutenean, daukagun giro bereziagatik geratzen dira», erantsi dio Espinosak. ◀

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA




Hemezortzi!

Hona hemen Lili eta Mimi. Lili pottoloagoa da eta Lili meheagoa, baina ez dira bien arteko desberdintasun bakarrak. Aurki itzazu aldeak. 18 dira guztira.

Margotu

Aizu! Ez utzi ezertxo ere koloreztatu gabe!



Zein da zein?

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak **MARDUL** hitza osatzen dituzten hizkiak erabiliz, hurrenez hurren (batek M, A, R, D, U, L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



HIRUKA, zer da?



ITZIAR UNIBASO
BARRIKA

Funtsezkoa da tokiko errealitateak lantzen dituzten hedabideak izatea. HIRUKAK funtzio hori betetzen du gure eskualdean, bertako herrientzat garrantzitsuak diren albisteak eskainiz. Urteetan zehar, irakurleen beharretara egokitu da, edukiak bai edizio inprimatuan bai bertsio digitalean eskainiz, publiko zabalago batengana iristeko helburuarekin. Gurea bezalako herri txikiak ikusarazteko duen ikuspegia nabarmena da. Gainera, euskaraz argitaratzeak gure hizkuntza eta kultura zaintzen eta sustatzen laguntzen du.



AMAIA AGUIRRE
GETXO

HIRUKA, bai Getxon baita Uribe Kostan dagoen euskarazko komunikabideen erreferentea da. Hamar urte betetzen ditzuzue euskarazko komunikazioa azaltzen, eta euskaltzale edo euskaldun guztiontzat baliabide berezia izaten. Getxok, lehen momentutik, eta baita aurretiaz ere HIRUKAren aitzindari izan zirenekin, adeitasun nabarmena izan dugu eta daukagu. Euskara herritarren artean bultzatzea, eta erabilera indartzea daukagu helburu amankomuna HIRUKAK eta baita Getxoko udalak ere, eta horrexegatik, ahalmen guztia jartzen dugu eskualde guztirako berezia den komunikabide honekin elkarlana garatzeko. ZORIONAK.



JESUS MARI ARIZMENDI
LEMOIZ

Eskerrak eman nahi dizkiot HIRUKAri gure eskualdean egiten duen lanagatik. Luxua da antolatzen den guztiari ikusgarritasuna ematen dion eta eskualdeko udalerrien arteko lotura sendotzen laguntzen duen bitarteko bat izatea. Tamainari dagokionez udalerrri xumeenetakoa garenez, hemen ere gauza garrantzitsuak gertatzen direla erakusten du. Bere dedikazioari esker, gure herriko bizitza aberasten duten ekimenak eta jarduerak aurrera ateratzeko gure jendeak eta Udalak egiten duten ahalegina nabarmentzen da. Sakonki baloratzen dugu edukiaren bidez gure hizkuntza bizirik mantentzeko eta indartzeko egiten duen ahalegina. Komunitate gisa elkartzen gaitu eta Lemoizi ikusgarritasuna ematen dio.



AITOR GARAGARZA
PLENTZIA

Lehenik eta behin, 10 urte hauengatik zoriondu nahiko nuke HIRUKA. Heldu ginenetik argi izan genuen HIRUKA babestu behar genuela; izan ere, guretzako eskualde honetako arnaguneetako bat da, besteak beste, sortzen duen euskarazko hedabide bakarra baita. Hori harribitxi bat da gaur egungo gizartean. Horrez gain, HIRUKA bozgorailu bat ere bada, baina ez udalantzako, herritarrentzako baizik, eta, horregatik, zaindu behar dugun zerbait dela uste dut. Zorionak!

HIRUKAren 10. urteurrena dela eta, eskualdean hedabidea babesten duten udalerrietako alkateengana jo dugu, beraien ustez HIRUKAk herriari zer ematen dion eta zergatik babesten duten galdetzeko.



EKAITZ PAU
GORLIZ

HIRUKAren 10. urteurrena ospatzen den urte berezi honetan, zorionik beroenak helarazi nahi dizkiet urte hauetan guztietan aldizkaria bizi-bizi mantentzeko lan egin duten profesional guztiei. Euskarazko komunikabideek funtsezko papera daukate gure hizkuntza biziberritzeko bidean, eta HIRUKA horren adibide bikaina da: gertuko informazioa eskaintzen du, eduki interesgarriak sortzen ditu, eta Uribe Kostako errealitatea euskaraz kontatzen du. Gure herrian, Gorlizen, bere ekarpena nabarmena izan da. Herritarrei gertutasunez eta kalitatez informatzeagatik, bihotzez eskerrik asko. Bide oparoa opa dizuegu!



IBAN RODRIGUEZ
LEIOA

HIRUKA herria egiten laguntzen dozkun gauza dala esango nuke. Bitoriano Gandiagak esaten zuen moduan, «euskara, hizkuntza bat ez ezik, herri bat ere bada». Zentzu horretan, nik uste dut badaukagula komunikabide bat, kasu honetan HIRUKA, euskaraz bizitzeko eta askatasunez gauzak irakurtzeko aukera ematen dozkuna. Zoritxarrez, gure gizartean beti ez dogu erraztasun hori izaten, eta HIRUKA bezalako hedabide bat izateak herria ere egiteko beste bide bat ere bada. Esango nuke asko aldatu den komunikabide bat dela, eta aldaketak positiboak ere badirela, nahiz eta askotan ez dogula baloratzen dekoguna, galdu arte; uste dot ez dogula horretara itxaron behar eta bakoitzaren erronka ere badela horretara hurbiltzea eta lana aintzat hartzea.



GURUZNE CARRASSON
SOPELA

Uribe Kostako komunikabide bakarra da HIRUKA, eta, gainera, euskaraz da erabat. Aire-ahokada bat da oxigenorik gabeko leku baten erdian, eta, zalantzarik gabe, euskararen normalizazioa bultzatzeko tresna handi bat, onena ez bada. Gainera, irabazi-asmorik gabeko elkarte izanik, altxor handi bat da, eta erabili, erakutsi, lagundu eta bultzatu egin behar dugu. Gure paradisuko uhartea da, gure arnagunea. Euskara ez da soilik abenduaren 3an aldarrikatzeko, ezta Korrikan korrika egiteko ere, eta, jakina, Euskaraldian argazkia ateratzeko. Euskara gure historiaren, kulturaren eta nortasunaren oinarritzko parte da. Erabili egin behar dugu, erabiltzera eta ikastera animatu. Horregatik da hain garrantzitsua HIRUKAren lana.



ITZIAR IRATZAGORRIA
URDULIZ


HIRUKA erreferente bat da inguruko herritarrentzat. Aldizkariak eskualdeko eta tokiko Historia kontatzen du irudi eta hitzekin. Gure inguruko aldizkari euskaldun bat, gure albisteekin. Lehenik eta behin, gure hizkuntza eta kultura euskalduna sustatzen laguntzen du eta, halaber, euskararen erabilera eta transmisioa bultzatzen ditu. Bigarrenik, aldizkariak kultura, gizarte eta politikako gaiei buruzko informazioa eskaintzen digu, eta euskaldunon iritziak, kezak eta interesak jasotzen ditu. Euskaldunon eguneroko bizitzan funtsezkoa da informazio eta entretenimenduaren bidez hizkuntza eta kultura propioa indartzea, eta, horretarako, oinarritzko funtzio mamitsua betetzen du HIRUKAk.

42 | Atzera begira

Metro Bilbao 30 urte



ARGAZKIAK: EUSKOTREN ARTXIBOA




Metroak Bilbo Handiko eta Bizkaiko mugikortasuna eta hirigintza eraldatu zituen duela 30 urte. 1995eko azaroan, Bilboko Alde Zaharra eta Plentzia artean lehen joan-etorria egin zuten 1 Lineako trenak, eta, orduetik, bidaiari-kopurua hazi baino ez da egin: 2024an, Metro Bilboak 100 milioi bidaiari baino gehiago izan zituen, inoiz baino gehiago.

Azpiegitura honek garaiko 1.200 milioi euroko inbertsioa izan zuen, eta, besteak beste, trazaduraren % 70 inguru lurpetik egin zen eta 120 urte baino gehiago zituen Bilbo eta Plentzia arteko trenbide zaharraren ibilgua bereganatu zuen. Hala, gaur egun, 1 Lineak Etxebarritik Plentziara bederatzi udal-erri konektatzen ditu, 29 geltokiren bitartez eta 28,8 kilometroko ibilguan. 2005ean, metroaren 2 Linea estreinatu zuten, Ezkerraldea ere zerbitzuan sartuz; horren azken luzapena 2014ean egin zuten, Kabiezesera arte.

Garraio-bide honek herritarren mugitzeko ohiturak goitik behera aldatu zituen, errepideetatik trafikoa atera baitzuen, eredu-garriagoa den mugikortasun jasangarriago baten alde eginez. Ez hori bakarrik, metroak inguruko udal-errietako hirigintzan eta ekonomian ere izan zuen eragina. Uribe Kostan, Leioako hainbat industriagune bizitoki izatera pasatu ziren, eta Lamiako bezalako azpizko hainbat biztanle berri jaso dituzte; era berean, Plentzia eta Sopela bezalako udal-erriek ere hainbat biztanle finko irabazi dituzte udaldirik kanpo.

Sorreratik, 1 Lineak hedatzen jarraitu du, hala, Etxebarri eta Ibarbengoako geltokiak egin zituzten 2005ean eta 2020an, hurrenez hurren. Etorkizunean, zerbitzuaren automatizazioa eta Loiuako aireportuagaz lotura bezalako erronkak aurreikusten zaizkio. ◀

MAITATUZ HAZI, IRAKURRIZ BIZI!



IBAIZABAL
www.ibaizabal.com

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Udabarria bertsoan Plentzian

Bertsoez giro onenean gozatzeko 2 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu maiatzaren 29rako. Plentziako Goñi Portalean izango da, arrastiko 18:30ean. Ez galdu hitzen jolasaz gozatzeko parada hau!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.




Zozketa

Ibaizabalen ipuin dibertigarria

Ibaizabal argitaletxeari esker, 6 urtetik gorako umeentzako *Pinguinoaren fraka* ipuina lortzeko aukera izango duzu. Ezagutu itzazu animaliak gertutik ipuin polit honen marrazkiakaz!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Hontza Extremerako 2 sarrera

Kirol abentura zirrargarrienaz gozatzeko aukera duzu orain, izan ere, 2 sarrera zozkatuko ditugu Hontza Extremera joateko. Naturaz inguratuta gorputza mugitu gura baduzu, hau da zure plana!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



UMORE AZOKA 2025

XXV FERIA DE
ARTISTAS CALLEJEROS
DE LEIOA

